

Federico de Zavala, Juan Garmendia Larrañaga Tolosa hiriko monografia historikoa

Manuel Domenech-ek irudiztatua



40

Juan Garmendia Larrañaga Bilduma



2000. Tolosa hiriko monografia historikoa / Federico de Zavala, Juan Garmendia Larrañaga ; Jon Urrutia itzultz. – Tolosa : Tolosako Udala ; Laskorain Kultura, 2000

2006. Tolosa hiriko monografia historikoa / Federico de Zavala, Juan Garmendia Larrañaga; Jon Urrutia itzultz. – En : *Miscelánea II* (Euskal Herria. Etnografia. Historia. Juan Garmendia Larrañaga. Obra Completa ; 9). – Donostia : Haranburu Editor, 2006

2007

Tolosa hiriko monografia historikoa / Federico de Zavala, Juan Garmendia Larrañaga ; Jon Urrutia itzultz. ; Manuel Domenech jatorrizko grabatuak. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – 58 or. : ir. – (Juan Garmendia Larrañaga Bilduma ; 40). – ISBN : 978-84-8419-103-2. – 1969ko edizioaren itzulpena “Monografía histórica de la villa de Tolosa”

Itzultzailea

Jon Urrutia

Jatorrizko grabatuak

Manuel Domenech



EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Institución fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y Navarra.
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia - Tel. 943 31 08 55 - Fax 943 21 39 56
Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

Fotokonposaketa: Michelena artes gráficas. Astigarraga
Digitalizazioa eta argitalpen elektronikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulanguntzarekin

Tolosa hiriko monografia historikoa

Federico de Zavala
Juan Garmendia Larrañaga

Orria

Kredituak	
Aurkezpena	3
Hitzaurrea	5
1. Sorrera	7
1.1. Kokapena	7
1.2. Hiri-Gutuna eta Udal-Foruak	8
1.3. Pribilejioak	9
1.4. Ordenantzak	10
2. Tolosaren deskripzioa	13
3. Tolosa, gotorleku	17
4. Garapen ekonomikoa	20
4.1. Merkataritza	20
4.2. Industria	21
5. Bizimodu sozio-politikoak	24
6. Erljioa	30
6.1. Santa Maria	32
6.2. San Frantzisko eliza	33
6.3. Santa Klara komentua	33
6.4. Baselizak eta beste eliza batzuk	34
7. Benefizentzia	38
8. Kultur jarduera	38
8.1. Eskultura eta pintura	43

8.2. Musika	43
9. Irakaskuntza	46
10. Inprimatzaileak	48
11. Kirolak	50
11.1. Pilota	50
11.2. Herri-kirolak	51
11.3. Beste zenbait kirol	52
12. Jaiak	54
12.1. Aste Santua eta Corpus Christi eguna	54
12.2. San Joan	54
12.3. Olentzaro	57
12.4. Inauteria	57

Aurkezpena

Juan Garmendia eta Federico Zabalaren lan honen berrargitalpena Tolosako euskaldunen artean nabari zitekeen hutsune bat betetzera dator, gure herriari buruzko datuak biltzen dituen idaztia tolosarron mintzoan ematearena, hain zuzen. Horretan ere ez baikara erabat apartekoak. Gurea bezala makina bat herri dira ezpainetan hizkuntza bat erabili arren gauza “jantzixea-goetan” beste bat darabiltenak. Eta horratx kasualitatea, denek dute ezaugarri bera, gauzarik normalena litzatekeena, ama-hizkuntza eta eskolarena bat eta bera beharrean mendeetan ukatu zaie, eta ukatzearen ukatzeaz, azkenean askok normalizat jo dute eta baita sutsu aholkatu ere maisuari berezko hizkuntzan umea entzun orduko jar diezaiola merezi duen zigorra, kontratu eta guzti.

Asko aldatu da egoera azken urteotan, eta gero eta gehiago dira euskaraz eskolatutako haurrak eta gazteak. Tolosako ikasleek hemendik aurrera izango dute bere herriaren iraganaren berri euskaraz jasotzeko aukera, bejondeiela, gutako askok izan ez genuena, inondik inora.

Tolosar bati dagokio Gipuzkoako lehen historialari izatearen ohorea, XVI. mendeko Zaldibia Batxilerrari, “Suma de las cosas cantábricas” delakoaren egilea. XVII.ak Migel Aranburu ezagutu zuen, Gipuzkoako foruak bildu zituen langile nekagaitza. Eta XIX.enean mende osoa beteko duen Pablo Gorosabel historialari, abokatu eta artxibaria. Azken honek burututako lan mardulean bereziki aipagarri den batek merezi du gure arreta, “Bosquejo de las antiguéddades... de la villa de Tolosa” delakoa, hain zuzen ere.

Ezin ukatu liburu honek bertako instituzioei eta gertakariei buruz ematen dituen datuak ezin bestez baliatu dituztela gure egileok monografia hau atontzerakoan.

Federico Zabala historialaria Tolosan jaio zen 1916an. Zaragozan Zuzenbidea ikasi arren zaletasuna Historia izan zuen, Euskal Herriarena bereziki. Familiaz zetorkion zaletasuna, berak aitortzen duenez, bertan mamitu baitzuten gure aurretikoen izaera, Foruak, Batzar Orokorrak eta Foruen gainbeheraren inguruko pasadizoak. Hainbati gertatu bezala karlismoaren altzotik

nazionalismora egin zuen jauzi, Sabino Arana bera lekuko. Naziotasunaren kontzientzia hartzeak eraman zuen herri honen askapenaren alde lan egitera. Helburu honexek bultzatu zuen Historian murgiltzera, liburuak idaztera, hitzaldiak, ikastaroak ematera, beti bere ondorengoek gai hauetan sakondu dezaten eta Euskal Herria zer izan den eta zer den ezagutzera iritsi daitezen.

Bigarren egileak, Juan Garmendia Larrañagak berak dioenez Federicok akuilatuta hartu zuen Tolosari buruzko liburu honen idazteko lana. Hau ere, aurrekoa bezala, zaletasunez sartu zen Historiaren eremuan. Alde Zaharrean 1926an jaioa, desagertzera zihoan mundu baten lekuko izateko zortea egokitu zitzaion eta etorkizuneko belaunaldiak iraganzurtz gera ez zitezen gogor ekin zion salba zitekeen ahalik eta gehiena jasotzera. Asko aldatu da Tolosa XX. mende hasieratik hona eta asko aldatzea tokatuko zaio, dudarik ez. Lanbideak desagertuko dira, lan mundu horiek sortu zituzten pertsonen arteko harremanak ere haiekin batera joango zaizkigu, zenbat hitz ez ote diren dagoeneko ezereztatu, denboraren indar ahaltsuak eramanda testigantzarik utzi gabe guztiz izkutatu? Juan Garmendiari zor izango diogu zati bat bederen gure artean geratu izana, ez da gutxi.

Hitzaurrea

Herri bati buruzko monografia historikoa luzera jakin batekin idazteak, nahitaez, gainditu ezineko mugak ezartzen dizkio lanari.

Hori dela eta, izan dugun lan handienetako bat liburuxka honen edukia aukeratzea izan da. Izan ere, hautatze lan horren ondorioz datu asko, berri asko, gauza asko, gure ustez denak interesgarriak, kanpoan utzi behar izan ditugu. Irakurlea horretaz ohartuko da, baina jakin behar du ez ditugula nahita ahaztu.


Tolosari buruzko liburu hau monografia historikotzat jo dugu azken hitz horren benetako esanahian.

Gure ustez, herri baten historia, lurralde batena orokorrean, ez da errege-erreginen historia, ezta ospe handi edo txikiko batailen narrazioa. Hala balitz, historia lepo-mozte eta ankerkeriez jositako zerrenda monotono eta monokordea izango litzateke. Historia herri batek lurralde jakin batean izan duen eraginaren azterketa da, sarritan herriaren izaera zehaztuz eta (1. kapituluaren adierazten den bezala) bere historia azalduz.

Herri baten ekintza herriaren izateko moduan islatzen da, eta izaera hori herriaren kultura da. Hori dela eta, kultura mota desberdinak ditugu: kultura politikoa, hirigintzako kultura, kultura militarra, kultura ekonomikoa, gizarte kultura, erlijio kultura, literatur kultura, kultura artistikoa, kultura zientifikoa, irakaskuntza kultura, kirol kultura, jolas edo jai kultura.

Kultura horiek guztiak, Tolosa herriaren izateko modu guzti horiek, men-dez mende tolosarrek gure Gipuzkoako lur maite honetan izan duten jardueraren ezaugarri direnak, batzen, laburbiltzen, orrazten eta aurkezten saiatu gara liburuxka honen ataletan.

Hasieran esan dugunez, gure mugak ezagutzen ditugu, eta askorentzat honako lan hau ahalegin bat baino ez da izango. Espero dugu, hala ere, irakurle zentzudunak, borondate onarekin, gure hutsune ugariak gainditzea.



Nafarroako zubia eta Idiakez jauregiaren irudi zaharra

Tolosa

1. SORRERA: HIRI-GUTUNA. FORUA. PRIBILEJIOAK. ORDENANTZAK

1.1. Kokapena

Bonifazio Etxegarairen arabera¹, erabakigarria ez baldin bada ere, Tolosaren kokapen geografikoak azaldu egiten du neurri handi batean hiriaren historia.

Nafarroatik hurbil eta hiru ibairen elkargunean dago Tolosa: batetik Oria, hiria Goierri eta Beterrirekin elkartzen duena, eta bestetik Araxes eta Elduarain, Nafarroarekin bat egiten dutenak.

Kokapen geografikoari dagokionez oinarrizko bi puntu azpimarratu behar ditugu:

- a) Nafarroatik hurbil egotea.
- b) Hiru ibairen elkargunean egotea.

Lehenbizikoak bi ondorio ekarri zituen: Tolosaren sorrera eta hiria gotorleku bihurtzea. Bigarrenak garapen ekonomikoari ireki zion bidea komunikabide gune gisa eta horri esker, Gipuzkoa barreneko lehenbiziko merkataritza gunea izatera iritsi zen.

Tolosaren bi alderdi horiek aztertu aurretik, atal honen izenburuan aipatutako lege-araubidea aztertuko dugu.

Donostia izan ezik, Gipuzkoako hiriak XIII. mendetik aurrera sortu ziren. Sorrera horien arrazoi nagusia, sarri askotan, etsaiengandik babestea zen. Tolosari dagokionez, horrexek ekarri zuen hiriaren sorrera. Gipuzkoak Gaztelako Alfontso VIII.a erregetzat hartu zuenean eta Nafarroako koroatik banandu zenean, Nafarroako erresuma atzerritar bihurtu zen eta horrek

1. *Libro-Homenaje a Tolosa. VII Centenario*. "Eficacia de la Carta-Puebla de 13 de septiembre de 1256".

mugak zaindu beharra ekarri zuen. Hori dela eta, Alfontso Jakitunak Tolosa sortu zuen 1256. urtean. Horrek ez du esan nahi Tolosa sortu aurretik bertan inor bizi ez zenik. Euskal Herriko iparraldeko herrien ohiko modura zegoen populaturik: banakako etxeak edo baserriak haranean, eta batez ere, mendi eta hegietan sakabanaturik –Urkizu, lurre, Uzturre, Monteskue². San Salvador de Olazabalen dohaintza agirian (1025 urtekoa) Tolosa hiribarrutiko zenbait toponimo agertzen dira, Berasibia³ adibidez. Begibistan dago hiria sortu aurreko populazioak bere gobernu edo administrazioa zuela, baina ez zegoen idatziz jasoa, ohituran oinarritutakoa baitzen.

Alfontso X.ak ez ezik, bertako biztanleak ere konturatu ziren Nafarroako muga babestu beharraz. Izan ere, biztanleak sakabanaturik bizi ziren eta 1200ean galdutakoa berreskuratu nahian zebiltzan nafarren erasoak jasaten zituzten.

Gure ustez, Gipuzkoa Alfontso VIII.arekin bat egiteak eman zien hiriak sortzeko eskumena erregeei, baina horretarako ezinbestekoa zen erregeek hiri berri horri zegozkion lurren jabe izatea. Bonifazio Etxegarai dioenez⁴, lurak ez ziren erregearenak ez konkista eskubideengatik ez beste edozein arrazoiengatik⁵. Beraz, Tolosa erregearen interesekin bat zetorrenez, biztanleen jabetzako lurretan sortu zen.

1.2 Hiri-Gutuna eta Udal-Foruak

Hiriaren kontzeptua, Erdi Aroan ematen zaion adieraren arabera, lege “Status” berezi eta pribilegiatu bati loturik dago. “Status” hori lortzeko Hiri-Gutuna izeneko sortze agiria behar zen. Tolosako Hiri-Gutunak bere xedapenen artean Gasteizko Forua ematen die bertako biztanleei eta petxeroak bertara bizi izatera joan ez daitezten xedatzen du zenbait diru-zigorren mehatxu pean. Hiriak Hiri-Gutunean agertzen diren zuzenbide-arauetan oinarritzen dira. Hori dela eta, Tolosari Gasteizko Foruaren zuzenbide-arauak dagozkio. Arau horiek hiriaren sortzaileak eman zizkion⁶.

Gasteizko Forua ezaguna da Erdi Aroko legerian bere izaera aurrerakoiengatik. Logroñoko Foru aurrerakoa Gasteiz zaharraren barrutian sortutako hiriarri eman zion Antso VI.a Jakitunak zenbait aldaketa aurrerakoi sartu ondoren.

2. Intxurreko arkeologi aztarnak –J.M. Barandiaranen arabera– Erroma aurrekoak dira.

3. Isastik, *Compendio Historial*-ean 104. or. Tolosako oinetxeen artean Berasibia-azpikoa eta Berasibia-goikoa aipatzen ditu.

4. Ibidem.

5. Hala ere, baziren erregearen jabetzako lurak, adibidez, Aldaba.

6. Udal-Foruak eta Euskal Herriko Udal Foruak guztiz desberdinak dira. Lehenengoak sortzaileak emandakoak dira “gratia” gisa. Bigarrenak usadio eta ohiturak dira “legetzat hartutako ohitura da, arau idatziaren perfekzioaz jantzitako usadioa” (Elías de Tejada.- *El Señorío de Vizcaya*). Hortaz, “ius” bat da, hau da, eskubide bat.

Gasteizko Forua nagusi izan zen Tolosan eta Gipuzkoa barreneko hirietan (kostaldean Donostiakoa izan zen nagusi) eta honako ezaugarri hauek ditu:

a) GIZABANAKOAREN ESKUBIDEEN BERMEA

Bizilekuaren bortxa ezintasuna. Etxe batean, jabearen borondatearen kontra, merio edo borrororik sartuz gero, jabeak hura hiltzeko eskubi-dea zeukan. Hiritar guztiak libreak ziren. Edozein delitu eginda ere, ezin zen inor atxilotu baldin eta fidantza ordaintzen bazuen. Tormentua ematea debekatuta zegoen.

b) SALBUESPENAK

Soldadutzatik eta edozein zerga ordaintzetik salbuesita zeuden, urtero etxe bakoitzeko bi soldata ordaintzetik izan ezik.

c) Mendi komunalak ustiatzeko askatasuna...

d) Alkatea hautatzea.

Gasteizko Foruak antza handia du Gipuzkoako Foru Nagusiarekin. Izan ere, Maritxalarrek eta Manriquek diotenez⁷, Gipuzkoako anaiartea eratu zenean Udal Foruak desagertu eta Gipuzkoako Foru Nagusia nagusitu egin zen.

1.3. Pribilejoak

Errege-erreginek hainbat pribilejio eman zioten Tolosa hiriri, batetik kokapen estrategiko ona zuelako, eta bestetik bertako biztanleria haztea nahi zutelako. Jarraian, laburki bada ere, pribilejio horiek zeintzuk izan ziren aipatuko dugu.

Pribilejioak, oro har, bi motatakoak izan ziren: batetik zergarik ordaindu behar ez izatea, eta bestetik industriari eta merkataritza trafikoari dagozkion pribilejioak.

Lehenengo atalean Alfontso X.ak emandakoa aipa dezakegu, izan ere, errege horren aginduz erresuma osoan tolosarrek ez zuten merkataritza bidesaririk ordaindu behar, Toledo, Sevilla eta Murtzia hirietan izan ezik (Fernando IV.ak pribilejio berbera eman zien bilbotarrei 1301ean). 1282an Tolosa erre zenean, Antso IV.ak berriro jendeztatu nahi izan zuen, eta hori dela eta, zenbait pribilejio eman zion; horien artean nabarmenena zerga-salbuespena izan zen, batez ere ozterarte ordaindu behar ez izatea. 1290eko pribilejioak honelaxe dio⁸: “e que non den fonsadera nin otro pecho nin derecho

7. *Fueros de Navarra, Vizcaya, Guipúzcoa y Álava.*

8. Gorosabel, *Bosquejo...*, 8. or., 1853ko ediziotik hartuta.

alguno”; pribilejio horren bidez, tolosarrek ez zituzten etxe bakoitzeko udal zergak ezartzen zituen bi soldatak ordaindu behar. 1342an Alfontso XI.ak berriz ere ozterartea ordaintzetik salbuetsi zituen; 1374an Enrike II.ak “pedido” izeneko zergatik eta Joan I.ak 1379an “yantares” izenekotik.

Irakurlea honezkero konturatuko zen pribilejio guzti horiek zergarik ez ordaintzea zekartela. Harritzekoa da, ordea, Gasteizko Foruaren eta Antso IV.aren pribilejioaren emakida lortu ondoren, hurrengo errege-erreginek gai beraren inguruan aritu behar izana.

Hori dela eta, pentsa dezakegu aipaturiko salbuespen horiek behin eta berriro hautsi egiten zituztela. Tolosarrek euren eskubideei eutsi nahi zieten, horregatik hauste horien aurka agertu ziren eta erregearengana jo zuten Tolosa hiriari zegozkion legeen arabera joka zezan.

Ekonomia administrazioaren egoera zein zen eta erregearen agindupekoek tolosarrei zergak kobratzeari zergatik ekin nahi zieten ulertzeko 1463an Gaon zerga-biltzaileari gertatutakoa azalduko dugu. Gertaera hori hain izan zen garrantzitsua non gaur egun ere tolosarrek gogoratzen baitute. Gaon erregearen agindupeko zerga-biltzailea Tolosara etorri zen “pedido” izeneko zerga kobratzera. Tolosarrek ez zuten zerga hori ordaindu behar, Enrike II.ak Gasteizko Forua eta berariaz pribilejio hori eman baitzien Antso IV.aren pribilejioarekin batera. Tolosarrak kontra agertu ziren eta erregearen funtzionarioa hil egin zuten, beren eskubideak zapal ez zitzaizkion⁹.

Industriari eta merkataritzaren inguruko pribilejioen artean hiru dira duten garrantziagatik aipatu beharrekoak: 1307an Fernando IV.ak Tolosa hiriari bere jurisdikzioko eta ondoko herrietako meategiak esleitu zizkion. Joan II.ak 1443an Nafarroatik eta Aragoitik Gipuzkoako itsasaldeko portuetako merkataritza jarduerak Tolosatik igaro behar zuela erabaki zuen (pribilejio hori Felipe II.ak berretsi egin zuen 1562an). Azkenik, 1503an Errege-Erregina Katolikoek beste pribilejio bat eman zioten hiriari; horren bidez Nafarroatik ateratzen ziren merkantzia guztiek Tolosako aduana pasatu behar zuten. Hiru pribilejio horiek, hiriaren garapen ekonomikoaren oinarria izan ziren eta horietako batek Tolosari Aragoi eta Nafarroarekin salerosketan ibiltzeko monopolioa ematen zion.

1.4. Ordenantzak

Hirik ordenantzen bidez barne araubidea zehazteko berezko eskumena zeukaten. Tolosako ordenantza zaharrenak 1328koak dira; handik 10 urtera moldatu egin zituzten eta 1532an erabat aldatu. Ordenantza horiek XIX. mendera arte indarrean egon ziren.

9. Gipuzkoako Foru Orokorrek bidea ematen zuen Foruen edo Batzar Nagusiek hartutako hitzarmenen aurka egiten zutenak hiltzeko. XVIII. mendean Marqués de Narros Ahaldun Nagusi ospetsuak foru hori gogorarazi zuen.

Edukiari begira Tolosako ordenantzak hiru multzotan sailka ditzakegu: a) udal gobernuari dagozkionak; b) hornidurari dagozkionak; c) zigor arlokoak. Guk lehenengo biak baino ez ditugu aztertuko.

- a) UDALARAUBIDEA.- XVI. mendean kontzeju irekiaren ordez, kontzeju itxia ezarri zuten. Kontzeju itxiko zazpi kideek errejimentua osatzen zuten. Alkatea eta bost errejidoreak San Migel egunean aukeratzen zituzten. Horretarako hautesle guztien izenak ontzi batean jartzen ziren, eta beste batean txartel zuriak; horietako seitan “alkate” hitza zegoen idatzita. Lehenengo ontzitik haur batek ateratzen zituen txartelak eta bigarrenetik irakurtzen eta idazten ez zekien gizonezko batek. Izena eta “alkate” hitza batera irteten zirenean hautesle hori aukeratu egiten zuten. Sei hautesleak atek itxita biltzen ziren (debekatuta zuten apaizekin hitz egitea, eginez gero hiru mila marabedi ordaindu behar zituzten) eta beren artean alkatea eta bost errejidoreak aukeratzeko zituzten. Errejimentua edo udala aipatutako alkateaz eta errejidoreez gain Arramele Kofradiako fidelak osatzen zuen. Aurrerago esan dugun bezala, sei hautesleak ezin ziren gelatik ateratzen aukera egin arte (bost mila marabediko isuna ezartzen zitzaie irteten zirenei). Berdinketa irtenez gero, zotz egiten zuten.

Arremele Kofradiako fidela San Joan elizan aukeratu ohi zuten, San Migel eguna baino hamabost egun lehenago.

Fidelak administrazio arloan alkateak zituen eskumen berberak zeuzkan. Bai batak, bai besteak errejimentua deitu eta honek erabakitakoa betearaz zezaketen; biek zeuzkaten hiriaren zigilua eta pribilegioak, eta errejimentuan hitzartutakoa erabaki ohi zuten.

Hauteslea izateko beharrezkoa zen Tolosa hirian bizitzea eta bertan hogeita hamar mila marabedi edukitzea onibarretan; hautagaia izateko, berriz, onibarretan hirurogei mila marabedi eduki behar ziren. Alkateak eta errejidoreek derrigorrean hiri-barrukoak izan behar zuten, lurramendiko nagusiak izan ezik. Hiritar izateko bi baldintza bete behar zituzten; gutxienez 6 hilabetez hirian bizitzea eta aitoren semea izatea (gipuzkoar eta bizkaitar guztiak berez baziren aitoren semeak). Sei urteko epean ezin zuten berriro alkate bera hautatu; errejidorea edo fidela, berriz, bi urteko epean.

Bilerak asteartero egiten ziren. Erabakiak botoen gehiengoz hartu ohi ziren eta berdinketa gertatzen zenean, zotz eginez erabakitzen zuten. Hiriko eskribau bat idazkari aritzen zen bileretan. Gaiaren arabera errejimientuak beste hiritar batzuk dei zitzaie haien iritzia zein zen jakiteko. Garrantzia handiko gaiak erabakitzeko, hau da, probintziako sutegiak banatzeko, Santa Mariako bikarioa aukeratzeko... kontzeju irekiko hiritar guztiak biltzen ziren.

Kargua utzi eta hamabost egunen buruan, alkate, fidel eta errejidoreek karguan egon bitartean izandako jokabidea argitu behar izaten zuten eta beren erruz sorturiko kalteei aurre egin behar izaten zieten.



Aspaldiko San Frantzisko kalea,, Frantziskotarren komentua eta Laskorain dorrekoa

Zinegotzi kargu nagusiak bi ziren, eta idazkariak eta kofradiako maiordo-
moak betetzen zituzten.

- b) HORNIDURAK.- 1532ko araubideek erabateko udalekotze edo esku-
hartzerako bidea ematen zuten. Interbentzionismo horren arrazoia
honakoa zen: elikagai eskasia (uztak urriak ziren) eta elikagai horiek
gutxi batzuek bereganatzea; hori dela eta, Udalak janari guztiei pre-
zioa ezartzen zien. Aleak saldu ahal izateko ezinbestean alondegira
eraman behar izaten ziren. Hiria errota, labe eta teileria guztien jabea
zen. Tolosarrek alea hiriko errotetan eho behar zuten, bertako labe-
tan ogia erosi eta udalerriko teilerietako teila eta adreiluak erabili.
Aipatutako gauza horiek ezin zituzten udalerritik kanpo erosi ez saldu.
Ardoa saltzeko Udalaren baimena behar zen eta debekatuta zegoen
ardoak nahastea eta ezarritako prezioetik kanpo saltzea. Taberna kopu-
ria mugatua zen; 1608an hiru zeuden, 1790ean berriz, sei, eta
1815ean zazpi baino ez. Abelburuak jendaurrean hiltzen ziren eta
hiria zen harategien jabea; horrek urtero enkantean jarri eta alokatu
egiten zituen. Debeekatuta zegoen bai sagardoa egiteko sagarrak, bai
sagardoa bera inportatzea. Sagardoa bertako sagarrekin egin behar
zen eta debeekatuta zegoen esportatzea eta ureztatzea, bestela isun
latzak ezartzen ziren. Ezin ziren Aldabako zuhaitzak moztu, hiriaren
aginduz ez bazen eta hiritarrek erabiltzeko ez baziren. Udalak zehaz-
ten zuen lanbide bakoitzari zegokion soldata.

Ordenantza horiek, neurri batean behintzat, joan den mendera arte inda-
rrean egon ziren. XVIII. mendearen bigarren erdialdean salerosketa liberaliza-
tzen hasi zen eta ordura arte aleei ezartzen zitzaizkien tasak kendu egin
zituzten. Horren ondorioz, "matxinada" izenez ezagutzen dugun mugimendua
piztu zen, baina mugimendu horrek ez zuen Tolosan eraginik izan.

2. TOLOSAREN DESKRIPZIOA

Tolosa gotorlekua izan zen, hori dela eta harresiz inguratuta zegoen. Oria
ibaiak eta Erretengibel¹⁰ izeneko adarrak sortzen zuten irlaren gainean eraiki
zen. Bost ate zituen: Nafarroa, Laskorain, Arramele, Rondilla eta Belate. Oria
ibaiaren gainean Nafarroa, Arramele (gaur egun baino gorago) eta Zubi-berri
izeneko zubiak zeuden; Erretengibel ibaiaren gainean berriz, Laskorain, Iturri-
txiki, Damas, Hiltegia eta Belate.

Migel Aranburuk 1689an Aita Henaori zuzendutako gutunean Tolosan sei
kale zuzen, ondo eginak eta alde bietatik etxe ederrez apainduta zeudela
esan zion; kale horiei beste hiru gurutzatzen zitzaizkien¹¹. Gaur egun kale

10. Erretengibel ibaiaren ibilbidea gaur egungo Rondilla edo Gorosabel izeneko kalearen ibil-
bide bera zen.

11. Aita Hena. *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria-Tolosa*. Eusebio López
1894.

horien izenak honakoak dira: Santa Maria (lehenago Jesus edo Elizaldea), Agintari, Nagusia, Antonio Elozegi (lehenago Korreo eta Laskorain) Errementari (lehenago Mikeo) eta Arostegieta edo Arpausokale.

Aranburuk ez zituen plazak aipatu, baina jakin badakigu antzinako plaza gaur egun Zaharra izenez ezagutzen duguna dela, izen ofiziala Idiakez badu ere. Plaza horretan azoka egunak, jaiak, zezenketak eta bestelako ekitaldi publikoak ospatzen ziren. Santa Maria plaza ere zaharrenen artean dago.

XVII. mendearen bigarren erdialdean Tolosa hiriaren itxura modu nabarmenean hobetu egin zen. Plaza Zaharra zabaldu eta bertan 1657tik eta 1672ra bitartean udaletxea eraiki zuten. Kontzeju irekiak itxi zirenetik udaletxe berria egin arte, Kale Nagusiko 17. zenbakian dagoen Andiatarren etxea edo dorrea erabiltzen zuten. Lehenengo udaletxea berankorra izan zen; bigarrena berriz, goiztiarra. Izan ere, handik urte gutxira, 1690ean, Plaza Berrian beste udaletxe bat eraikitzeko erabakia hartu zuten. Plaza Berria Iribarazeta izeneko lursailean egin zuten; izenak berak dioenez bertan baratzea zegoen, baita zenbait sutegi ere. 1703tik aurrera zezenketak Plaza Zaharrean egin beharrean Plaza Berrian egiten hasi ziren; Inauteri jaiak, berriz, Plaza Zaharrean ospatu zituzten 1845era arte, eta ordutik aurrera Plaza Berrian. Bertan 1703an zezendegiak egin zituzten eta pilota partidak luzean jokatzen zituzten.

Gorosabelen iritiz¹², Verdura Plaza, gaur egun Karlos VII.a izenez ezaguna dena, antzina plaza txiki bat baino ez zen. Gaur egungo itxura 1843an hartu zuen, bertan zegoen alondogia behera bota zutenean¹³.

Harresietatik kanpo, baziren etxe gune txikiak, Santa Klara eta San Frantzisko komentuen inguruan, Belaten eta San Joan elizaren eta Arramele ospitalearen inguruan. Gorosabelen iritiz, Zumardi Haundia oso antzinakoa da, baina dokumentuen arabera 1618koa baino ez da. Zumardi Txikia XVIII. mendearen azken aldera egin zuten. San Frantzisko kalean filosofoen pasealekua zegoen; pasealekuak izen hori hartu zuen Arte eta Filosofia ikastetxeko ikasleek horrelaxe deitzen baitzioten. Isabel Idiakez Rekalde almirante bilbotarraren alargunak San Frantzisko komentuan ikastetxea sortu zuen XVII. mendearen hasiera aldera.

1801ean alde zaharretik kanpora Tolosak aldaketa nabarmenak jasan zituen. Izan ere, urte horretan Erretengibealeko ubidea itxi eta estali egin zuten; horren ondorioz, 1815ean Rondilla kalea sortu zen, gaur egun Gorosabel izenez ezagutzen duguna. Hortaz, Tolosak irla izateari utzi zion eta ibai adarraren beste aldeko lurretan lehenengo zabalgunea hasi zen. Zabalgunea horren erdian Rondilla kalea eta Justizia Plaza zeuden; 1853an bertan epaitegia eraiki zuten. Plaza itxia da, eta arkupeak harmonia eta edertasun handikoak dira. Bertan zezenketak ospatu ohi ziren, eta behin bertan

12. *Bosquejo*, 304. or., Tolosa, 1953.

13. *Ibidem*, edizio bereko 342. or.

bildutakoek gertaera bitxi bat ikusteko aukera izan zuten, izan ere, Frascuelok bi zezenei aurre egin behar izan zien zezentokian. Plazaren inguruan Handia, Convenio (gaur egun Mártires de la Tradición), Beotibar eta San Frantzisko elizatik hurbil, eta Cuartel kaleak sortu ziren.

1883ko abenduaren 26ko Errege Arauaren bidez hiriaren plano orokorra aldatzea onartu zen eta 1923an Laskurain edo Laskorain ibarra zabaldu egin zuten; horretarako Zubi Berria, Foruen etorbidea eta gaur egun ibarra estaltzen duten beste kale guztiak eraiki ziren. Gaur egungo zabalguneak San Frantzisko ibiltokiaren eta trenbidearen artean eta San Esteban aldean egin dira. Zezen plazaren ondoan dagoen Laskorain ibarrean beste zubi bat egin zuten, Alfontso X.a Jakituna izenekoa; zubi hori beste auzo baten sorburua izan zen Berazubin, Pio XII.a etorbidearen inguruan. Bidebietan eta San Blas inguruan ere, beste auzo batzuk sortu ziren; guztira 39 kale eta 8 plaza.

Baserri aldeko auzoak honakoak dira: Aldaba, Ausotxikia, Bedaio, Monteskue, San Blas, San Esteban, Santa Luzi, Urkizu eta Usabal. Gaur egun auzo horietako batzuk aldatzen hasi dira; San Blas, San Esteban, Santa Luzi eta Usabal auzoak adibidez, jadanik badaude industrializatuta edo industrializatzeko bidean eta Santa Luzi auzoa ikastetxeen kokalekua izango da. Auzo horietako seitan elizak edo ermitak zeuden, baina horietaz beste atal batean arituko gara.

Aldaba eta Bedaio auzoak ez ziren jatorriz Tolosakoak. Aldaba auzoa Antso IV.a Ausartari erosi zion hiriak 1290ean. Deigarria da erregea auzo horren jabea izatea eta azertu beharreko gaia dela uste dugu. Aldaba mendia da eta erosi zutenean bertan ez zegoen baserririk, baina zuhaitzak ugariak ziren. Hiriak baserriak eraiki eta alokatu egin zituen. Aldabako basoek udaleko diru-kutxa bete zuten, zuhaitzak itsasontziak egiteko saltzen baitzituzten. Ordenantzetan ageri denez, hiriak ondo zaindu zuen aberastasun iturri hori. XIX. mendean norbanakoek baserriak eta mendia bera erosi zituzten.

Bedaio berezia da bai fisikoki, bai juridikoki. Fisikoki Tolosatik urruti dago eta erabat bananduta. Bedaio aldetik Nafarroak mugatzen du Tolosa; 1.256ko garaierako kotara iristen da (Artubi, Aralar). Juridikoki, auzoaren, baserrien eta lurren jabeak, Berastegi etxeko jaunak, 1544an Tolosa hiriarri jurisdikzioa onartu egin zion, baina berarentzat gorde zituen jurisdizionalak ez ziren botereak; Insausti, Rodríguez Ondarra eta Elosegiren lan interesgarri batean "salbuespen feudala" izan zitekeela aipatzen da¹⁴. Lan honetan ez dugu arazo hori aztertuko, baina 1735eko Bedaioko nagusiak "emandako" ordenantzen arabera (aipatutako lanean argitaratuak), zentzu zientifiko hertsian ezin daiteke feudalismoaz hitz egin, hala ere, jaurgoa egon bazegoela baieztatu dezakegu. Tolosa eta Bedaioren arteko bat egitea ez zen gertaera isolatua izan, izan ere, Erdi Aroan beste herri batzuen artean ere gertatu zen, aurrerago azalduko dugun bezalaxe.

14. Banco de Tolosak argitaraturiko aldizkaria, Tolosa, 1955.- *Barrios rurales de Tolosa: Bedayo*.



Errege Armategi zaharreko patioa (erregearen arma fabrika), 1630ean sortua

3. TOLOSA, GOTORLEKU

Nafarroatik hurbil egoteak, muga zaindu beharrak, bihurtu zuen Tolosa gotorleku. Hiria harresi batek inguratzen zuen, baina bertan ez zegoen goarnizio finkorik. Izaera horri esker, Seguraren kasuan bezala, kontzeju eta auzo askok hiriarekin bat egin zuten. Auzo horiei gaur egun arrunki herri izena ematen diegu, baina izatez Bizkaia aldean lur laua izena hartzen dutenak ziren, harresiz inguratutako hiriei kontrajarriz. Tolosarekin bat egite hura ez zen erabatekoa izan. Aipatutako kontzeju eta auzo horiek “berez” populazio guneak ziren eta lurra eta ekonomi administrazio berezia izaten jarraitu zuten¹⁵. Bat egite horren ondorioz Tolosako alkatearen eskumen zibil eta kriminalaren pean egotera pasatzen ziren, Tolosako milizietan parte hartu behar izaten zuten eta Tolosako prokuradore batzarkidea zuten ordezkari Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gastu komunak ere ordaintzen zituzten. Tolosarekin bat egin zuten kontzeju edo auzoak 24 izatera iritsi ziren, Gipuzkoako lurren seitik bat¹⁶.

Bat egite horren arrazoia Tolosako gotorlekuaren babesa bilatzea zen etsaiengandik babesteko, nafarregandik eta ahaide nagusiengandik, batez ere. Arrazoi hura desagertzen joan zen neurrian lotura hura ere apurtzen joan zen, eta Tolosatik bananduz joan ziren. Gehienak 1615ean banandu egin ziren, azkenak berriz, Berrobi, Leaburu, Gaztelu, ez ziren 1845era arte banandu. Banatze horren arrazoiak, aipatutakoez gainera, Bonifazio Etxegaraik aipatzen dituenak dira¹⁷: euskaldunak etxe bakartuetan edo gune txikietan bizi izateko duen joera. Karmelo Etxegaraik eta Serapio Mujikak ideia horiei eusten diete¹⁸.

Izaera militar horrek Beotibarko gatazka eta Tolosak Leitza eta Aresoko lur nafarrak menpean hartzea ekarri zuen. Nafarroako muga, Gipuzkoa bere ahizpa nagusiarengandik banandu zenetik ñafarren esanetanñ “gaizkileen muga” bihurtu zen. Oinaztarrek, batez ere Amezketa, Berastegi eta Lazkaoko etxeetako ahaide nagusiek eginiko gaiztakeria, abere-lapurreta etab. etengabeak izan ziren. Ahaide nagusi horien dorretxeak Ignazio Arozenak dioenez, lapurren gordelekuak ziren. Beotibarko gatazka testuinguru horretan aztertu beharra dago, eta borroka etengabe horien ondorio edo emaitza nagusia izan zen. Gipuzkoarrek Nafarroako lurretan sartu eta Gorritiko gaztelua hartu zuten. Aunayko bizkondeak, Nafarroako gobernadore nagusiak, 1321eko irailan gipuzkoarrak zigortzeko eraso antolatu zuen, baina Tolosatik hurbil, Beotibar izeneko tokian gipuzkoarrek Oinazeko Gil Lopezen agindupean garaitu egin zuten nafarra. Oinaztarren agintaria Amasako Larrea etxeko jauna zen ezkontzaz, orube horretako oinordekoarekin ezkontuta baitzegoen, Oinaz-Loiola etxeko oinordekoarekin hain zuten ere. Azpimarratzekoa da gipuzkoarren burua oinaztarra izatea, izan ere, gorago esan dugunez, lapurren ondorioz oinaztarrek borrokak izaten baitzituzten nafarrekin. Gipuzkoako

15. Berastegiko jaunak bezalaxe, bereak Bedaion gorde zituen.

16. Urroz, *Compendio Historial de la villa de Tolosa*, 28. or.

17. *La Vecindad*. Eusko Ikaskuntzaren edizioa.

18. *Monografía de Villafranca de Oria*.

gudarosteen agintari izanik, gudarosteak tolosarrek ez ezik, badirudi oinaztaren aldekoek, ahaideek, lagunek eta –garai hartan egiten zen bezala– su-eternari heltzen ziotenek ere osatzen zutela. Hala ere, Fausto Arozenak¹⁹ dioenez anai-arreben arteko gertaera samingarria izan zen.

Tolosak Areso eta Leitza bereganatzea, Aragoi eta Gaztelaren artean izandako gerraren atal bat izan zen Blanka Nafarroakoa, Joan Aragoiko infantearen emaztea tronora iritsi zenean. Bi hiriek gutxi iraun zuten Tolosari loturik, 1437an banandu egin ziren Nafarroa, Gaztela eta Aragoiko erregeek bakeak egin zituztenean. Menperaldi horren oroigarri gisa Tolosan Leitza izeneko kale bat dago.

Tolosak bere garrantzi militarra galdu zuen Fernando Katolikoak 1512an Nafarroa Gaztelari elkartu zionean.

Tolosako kontzejuetako miliziek sutsuki parte hartu zuten Fernando erregeak agindutako Nafarroako inbasioan. Errezilgo Alberto Perez kapitainaren agindupean izandako eskuhartzea erabakigarria izan zen Belateko gatazkan. Bertan Nafarroako legezko erregea, Joan II.a, garaitu eta hamabi kanoi eskuratu zituzten. Belateko gatazkaren omenez izen bera duen pasealekuan, Kapitainaren etxean jarritako oroigarri batek gertaera hura gogorarazten digu. Karlos enperadorearen agindupean 1521ean tolosarrek Nafarroaren kontrako gerran parte hartu zuten eta Noingo garaipenean lagundu zuten Nafarroako Enrike II.a erregearen kontra. Frantziarekin izandako gerretan tolosarrek, gainontzeko gipuzkoarrek bezala, parte hartu zuten muga defendatzen XVI. eta XVII. mendeetan. Konbetzio-gerran 1794an frantziar gudarosteek Tolosa hartu zuten. Napoleonen kontrako gerran ere frantziar gudarosteek hiria hartu zuten. Napoleon bera ere Tolosan egon zen eta Urbieta etxean gaua igaro zuen 1808. urtean. Tolosar asko engaiatu ziren frantziarren kontrako gerrilletan.

Lehenbiziko karlista gerratean agintariak Isabel II.aren alde agertu ziren, baina herritarrek Don Karlosen alde egin zuten. Karlistak Lardizabalen agindupean Tolosan sartu ziren 1833ko azaroaren 6an, baina hil horretan bertan alde egin behar izan zuten. 1835ean berriz hartu zuten hiria eta karlisten eskutan egon zen, gerra Bergarako hitzarmenarekin bukatu zen arte. Bigarren karlista gerratean, 1874ko otsailean, Tolosa Karlos VII.aren eskutan geratu zen gerra amaitu arte. Don Karlos bera Tolosan sartu zen 1874ko martxoaren 5ean. Gerrak iraun zuen bitartean Tolosa eta inguruko herriak, Euskal Herriko beste eskualde batzuk bezala, Santa Kruz apaizaren agertokia izan ziren. Nahiz eta Oñatin topo egin, Santa Kruzek Felipe Dugiols Balanzategi tolosar militarri aurre egin zion. Dugiols Foru Aldundiak osatutako bolondres liberalen gudarostearen buru zen. Filipinetako kanpainan nabarmendu zen eta Pampangako (Luzon) erasoan erakutsitako ausardiarengatik San Fernandoren ohorezko saria lortu zuen. Dugiols koronela Tolosako seme kutun izendatu zuten.

19. *Guipúzcoa en la Historia*, Minotauro ed., Madril.



Idiakez Jauregia. Gaur egun Tolosako kasinoa

4. GARAPEN EKONOMIKOA

Jadanik aipatu dugu kokapenak Tolosaren garapen ekonomikoan izan zuen eragina. Geografikoki leku egokian zegoenez, komunikazio bide garrantzitsuenen igarobide bihurtu zen. Horietako bat Araba zeharkatuz Gaztelatik zetorrena zen, San Adriango tuneletik Gipuzkoara sartu, eta Zegama, Segura, Beasain, Ordizia, Tolosa, Andoain, Hernani, Oiartzun eta Irun Behobiatik igarotzen zena. Arabatik zetorren beste bide bat Arlaban, Salinas, Arrasate, Bergara eta Urretxu zeharkatu ondoren Iartzan, Beasaingo sarreran aurreko bidearekin bat egiten zuena zen. XVIII. mendera arte hirugarren bide batek –hau ere garrantzi handikoa– Tolosa eta Nafarroa lotzen zituen, Beotibarretik eta Berastegitik.

4.1. Merkataritza

Tolosako lehenengo biztanleak baserritarrak ziren, nekazariak eta abeltzainak. 1346ko eroldaren arabera, Tolosako etxe eta baserrien izenak eta hiriko biztanleen izenak gehienetan bat zetozen; Amaro, Alzusta, Aioeta, Salsoro, etab. Salsoro izenak berak –lbalanek dioenez²⁰ agerian uzten du jatorria nekazaritza eta abeltzaintza duela.

Joan II.ak pribilejioa eman zuenetik Tolosako merkataritzak garapen handia lortu zuen, eta Gipuzkoa barrualdeko merkataritza gune garrantzitsuena bilakatu zen; astean hirutan egoten zen merkaturia, astearte, ostegun eta larunbatetan. Ohitura horrek XIX. mendera arte iraun zuen eta hortik aurrera larunbatetan baino ez zen egiten, gaur egun bezalaxe. Antzina hamabostean behin egoten zen ganadu feria; 1788an hilaren lehenengo astelehenean egitea erabaki zuten eta geroago astero. XVIII. mendean ganadu feria San Franzisko eta Santa Klara komentuen aurrean ospatzen zen. Azoka, hasiera batean, Plaza Zaharrean egiten zuten; geroago, Zerkausia kalera eramanez zuten eta gaur egun ere bertan ospatzen da.

Kokapen geografikoaz gain, Tolosaren garapen ekonomikoaz ari garela gure ustez badira aipatu beharreko beste bi gertaera: batetik, Tolosaren jurisdikzioa, gorago aipatu izan dugun bezala, Gipuzkoako lurraldearen seirena hartzen zuen “hinterland” zabal batera hedatzea; bestetik, Nafarroa eta Aragoirekin salerosketa monopolioa izatea. Hori guztia dela eta, Tolosako merkatuak hornidurarik onena zuen eta Gipuzkoako garrantzitsuena zen. Izan ere, Tolosako merkatuan zehazten ziren prezioak ofizialtzat jotzen ziren eta epaiketetan frogatzat erabili ohi ziren. Saltzaile-oldeak erosle-oldea ekartzen zuten; horren ondorioz, ordutegi bat arautu behar izan zuten eta kanpotarrek ezin zituzten merkantziak erosi ordutegi horretatik kanpo.

Jakina denez, Gipuzkoak salerosketa arloan harreman bizia izan zuen Ingalaterrarekin; izan ere, Erdi Aroan Ingalaterrako erregeak Gaskonia bere

20. *Libro Homenaje a Tolosa. Evocaciones de toponimia tolosana.*

menpeko lurraldea izanik, bertako ardoak Ingalaterran salerosteko monopolioa eman zien euskaldunei. Tolosa ez zen salerosketa horretatik kanpo gelditu, Donmenjon Gonzalez Andiari esker. Eduardo IV.a Ingalaterrako erregeak, bakeak iraun bitartean, urteko Bristolgo portuko eskubideen gaineko hogei liberako ordainsaria eman zion Andiari. Diru hori, aipatutako portu ingelesean Andiak lehorreratzen zituen merkantziei ezarri beharreko zergetatik kendu ohi zitzaion²¹.

4.2. Industria

Tolosa betidanik merkatua izateaz gain, ia sortu zenetik industria hiria ere izan da.

Tolosako industri jarduerak bi adar nagusi izan ditu: metalurgia eta papergintza. Lehena laster garatu zen, Gipuzkoako beste hainbat lekutan bezala, lurraldearen berezko ezaugarriak zirela eta. Burdinaren industriak beharrezko elementuak aurkitu zituen, hau da, burdingaia, basoak eta indar hidraulikoa. Udalerrian bertan burdingai gutxi zegoen, baina Fernando IV.aren pribilegioaren bidez bere jurisdikzio pean zeuden meatzeen jabe izatea lortu zuen. Hortaz, esan dezakegu industria 1307an Fernando IV.ak emandako pribilegioari esker abiatu zela eta merkataritza Joan II.aren pribilegioari esker.

Tolosan Igarondo, Amarozen eta Otzarain izeneko burdinolak zeuden eta bere jurisdikzioko herri edo auzoetan Iriarte, Azkue, Gorrola, Sanjuanola, Agaraitz, Ameraun, Olloki, Inturio, Asulontxo, Azelain, Asganaras, Amasaola, Mustar edo Munstar, Olaberria eta Plazaola izenekoak. Horien artean Azkue izenekoak (XX. mendean Ibarreko-Pertzola izenez ezaguna) iraun zuen luzaroen; bertan XVII. mendetik aurrera kobrezko tresnak egiten ziren²². Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak prozedura tekniko berritzaileak aplikatu zituen Tolosako Amarozen burdinolan; horren ondorioz, XIX. mendean berpiztu egin zen, eta laurogeita hamar langile izatea eta 3.200 kintal burdin ekoiztea lortu zuen²³.

Armagintza Euskal Herriko berezko industria izan zen. Tolosan industria espezializatu hori berehala garatu zen. Neurri handi batean eskulana zen, eta maisu edo nagusiek, ofizialek eta apendizek elkarrekin lan egiten zuten. Sutegiak herrian bertan zeuden, batik bat Iribarazeta aldean, gorago aipatu dugun bezala. Gehien bat alfanjeak, dagak, baleztak eta ezpatak egiten zituzten, azken horiek modu bikain batean egin ere.

Eskulangintzaz gain, 1630ean beste ekonomia jarduera bat hasi zen Tolosan, izan ere, urte horretan Errege Armategia, erregearen arma fabrika

21. Serapio Mujika. *Euskal-erria* aldizkaria, 58. zk.

22. Isasti. *Compendio Historial*.

23. *Cincuentenario del Banco de Tolosa*, 71. or.

ipini zuten (eraikina 1969ra arte zutik iraun zuen Santa Maria kalean). Armategi hori Eugiko armategi zaharra zen. Tolosarrek lekuz aldatu behar zutela jakin zutenean, eta horren ondorioz desagertu egingo zela, Tolosan ezartzea lortu zuten; horretarako lurra, egurra eta beste zenbait gauza eman zituzten. 1645eko inbentarioaren arabera²⁴, fabrika garrantzitsu hori honako sei taillerrek osatzen zuten: orokorra, grabatzaileena, apaintzaileena, “chodero” izenekoa, urreztatzaileena eta sarrailginena. Bertan armadura osoak, alfanjeak, ezpatak, baionetak etab. egiten zituzten. Lehenengo zuzendaria Domingo Zabala Aranguren ordiziarra izan zen; ondoren Diego Zabala Arteagak, Domingoren semeak, hartu zuen zuzendaritza eta horren ondotik Diegoren semeak, Jose Frantzisko Zabala Aranburuk. XVIII. mendean Errege Armategia erabateko gainbeheran zegoela, desagertu egin zen.

XVIII. mendean Tolosan jaurtigai-fabrika bat zegoen; bertan Manuel Laborderen arabera, burdina landua erabiltzen zuten. Era berean, aipatze-koak dira, “Fábrica de batería de cocina y hierro de chapa de Tolosa” izeneko eta Frantzisko Arribillaga eta Pedro Jose Muñoa forjari tolosarrak, beraiek egin baitzituzten Madrilgo lorategi botanikoko burdin hesiak. XIX. mendean zenbait fabrika ireki zituzten, besteak beste, Olarraineko eta Quintin Dugiolosen kobre-fabrikak; Bidebietako burdinurto-fabrika; Anoetako zubiaren ondoan alanbre eta puntapaxen fabrika, galdategiak eta bestelako metalurgitailerak. XVIII. mendean burdinolen gainbehera hasi zen, izan ere, Ingalaterran egur-ikatza erabili beharrean harrikatza erabiltzen hasi ziren, horrela produkzioa merkeago lortuz. Euskal Herriko burdinolak ezin ziren harrikatza erabiltzen zuten atzerriko burdinolekin lehian ari. Suediako burdina Cadizen 60 errealean saltzen zen, Euskal Herrikoa berriz, 80 errealean. Egoera hori konpontzeko atzerriko burdina inportatzea debekatu zen; halere, burdinolak hiltzorian zeuden.

Ehungintzak ere aipamen berezia behar du, batez ere, 1857tik 1859ra Antonio Elosegí Lizargaratek sortu zuen “Elosegí” txapel-fabrika ospetsuak. Fabrika horren ospea mundu osoko merkatuetara zabaldu zen eta gure artean garrantzi berezia dauka, txapela euskal janzkeraren berezko osagai bihurtu baitu.

Aipatutakoaz gain, XIX. mendean beste txapel-fabrika batzuk egon ziren, Saint Boix eta Irizar, besteak beste. Ehungintzaren barruan aipatu beharrekoa da 1845ean baiones juduen diruarekin sortutakoa, gaur egun Papelera Española dagoen lekuan²⁵. Mende horretan bertan Doussinague ehun-fabrika sortu zen.

XIX. mendean larrugintza garatu egin zen eta hainbat tailer ireki zituzten. 1912an, artean, horietako lau zabalik zeuden.

24. *Cincuentenario del Banco de Tolosa*, 66. or.

25. Ikus Julio Caro Baroja.- *Los Judíos en la España Moderna y Contemporánea*, III. tomoa, 188. or.

Papergintza aro modernoko Tolosako industria nagusia izan da. Felix Urabaienek “Estampas del Camino” liburuan (242 or.) honelaxe dio: “Tolosak burdinola zaharrak paper-fabrika bihurtu zituen. Ingudea eta altzairua atzean utzi zituen, eta ehundegiari eta bobinari bidea zabaldu zien; azken horrek burdinaren gogortasuna har dezake ideia onen berotasuna erabiliz gero”.

Urabaienek Tolosak jasan zuen aldaketaren irudi polita egin arren, badi-rudi papergintza irin-errota txikien babesean sortu zela. Lehenengo irin-errota Joan Ibar Atharratzeko semeak (Zuberoa) Alegian, Amezketako errepedearen ondoan, jarri zuena izan omen zen. Sebastian Insaustik²⁶ egindako ikerketaren arabera, Joan Ibarrek berak 1805ean Azaldegín, Ibarrañ, gaur egun Paperola dagoen lekuan, beste paper-fabrika bat jarri zuen. Labaienen ustez fabrika hori Longa eta Jauregiren basagudariak erre zuten 1813an²⁷; Gorosabelen ustez, berriz, Jose Guerra ahaldun nagusiak erre zuen. Insaustiren arabera Legazpin paper-fabrika bat egon zen, izan ere, 1805eko paper-sorta batzuetan fabrika horren filigrana aurkitu zuen. Guerratarrak Legazpikoak ziren eta interesak eduki ahal zituzten fabrika horretan, fabrika erretzeak lehiakide bat kanporatzea ekarriko baitzien. Tolosako lehenengo paper-fabrika 1818koa da. 1810ean Martin Olanok Tolosari Igarondoko errota erosi zion; errota hori gaur egun “La Tolosana” paper-fabrika dagoen lekuan zegoen. Ordiziako Jose Martin Uranga bere osaba Martin Olanorekin lan egitera etorri zen. Badi-rudi Uranga papergintzan ibilia zela (baliteke Legazpin ikasi izana); kontua da urte horretan bertan Igarondoko errota paper-fabrika jarri zuela. 1819an Jose Joaquin Mendiak Otzarain errota paper-fabrika bihurtu zuen.

Paper-industria modernoa 1842an abiatu zen “La Esperanza” fabrika ezarri zenean (Espainian paper jarraia erabili zuen lehena). Zoritxarrez, sortu eta 126 urtera itxi behar izan zuten. Aipaturiko urtetik aurrera papergintzak ez zuen atzera egin; udalerrian bertan zortzi lantegi ireki zituzten eta hamabi kilometroko itzuliguruan beste hamaika paper-fabrika.

Lehenago aritu gara burdin industriaren sorreraz eta sorrera horren arrazoiez, baina zer dela eta bildu zen papergintza Tolosan? XVIII. mendearen hasieran krisi gogorra izan zen Tolosan eta horren ondorioz, industria jardura berritzeko beharrezana ikusi zuten. Burdinolak hiltzorian egoteak, prozedura berriak sartzeak, eta batez ere, Fernando IV.ak Tolosari eman zizkion meatzetako minerala agortzeak papergintzari bidea ireki zioten. Gainera, hainbat gerraren ondorioz egin zituen zorrei aurre egiteko Tolosako Udalak irin-errotak saldu behar izan zituen, eta papergintzak irin-errotak aprobetxatzeko aukera ematen zuen. Irin-erroten kokapena eta egoera oso egokiak ziren paper-errota gisa erabiltzeko. Esandakoak agian ez du guztiz azalduko gerora gertatu zen industriaren garapena, baina esandakoari Atharratzeko Joan Ibar papergilea Tolosara etortzea gaineratu behar zaio. Izan ere, Antonio

26. *Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen aldizkaria*, 1966, 2. liburuxka, 183. eta 184. orr.

27. *Cincuentenario del Banco de Tolosa*, 77. or.

Labaien ustez²⁸ berarekin Bearneko irin-errotetan ikasitako lanbidea ekarri zuen.

Papergintza Tolosako industria nagusia bilakatu da; bere inguruan industria osagarriak eta bertatik eratorritakoak sortu dira.

Horiek guztiek Tolosa papergintza arloan Espainiako gunerik garrantzitsuenaz izatera eraman dute. Papergintzarako makineria egiteko tailerrak eta lantegiak, galdereriak, etab. hain dira ugariak non papergintzan aritzen direnak baino gehiago baitira. Eratorritakoen artean honakoak aipa ditzakegu: papera maneiatzen dutenak, grafikagintza eta inprenta; azken hori beste atal baten aztertuko dugu.

5. BIZIMODU SOZIO-POLITIKOA

Hirien sorrerak eragin erabakigarria izan zuen euskal gizartearen aldaketan. Artzain eta nekazariei, ahaide nagusien jatorrizko tribu eta leinuen antolaketari industria eta merkataritzaren jardueratik sortutako beste klase bat kontrajarri zitzaion. Klase berri horiek denboraren joan-etorrian kontzientzia politikoa hartzen joan ziren eta ahaide nagusiei aurre egin zieten. Horren ondorioz, foru izena hartu zuen antolaketa politiko berria sortu zen.

Ezin uka daiteke hiriek, eta beraz Tolosak, lehenbiziko urteetan behintzat, bizimodu makal eta gogorra izan zutenik. Ahaide nagusiak jaun eta jabe ziren Euskal Herrian. XIV. mendetik aurrera zenbait saio egon ziren, horien artean Tolosarena, Ermandade bat osatzeko. Saio horien aldi garrantzitsuenetan Batzar Nagusien bilerak egin ziren: Tolosan 1375ean, Ordizian 1386an, Tolosan 1391 eta Getarian 1397an. XV. mendean, 1451tik (Zirikiain Gaiztarrok aipatutako data²⁹) 1463ra (Arrasateko Batzarra) ezarri zen Gipuzkoako Ermandadea goi erakunde politiko gisa.

Ermandade horren sortzaile eta eragile, Gipuzkoa foralarena, Andiako Domenjon Gonzalez izan zen. Tolosan jaio zen Andiako dorrean, Oria ibarraren erdian (kale nagusiko 17. etxea,). Andia Gipuzkoako Batzar Nagusietako eskribaua eta idazkaria zen 1456 urtea aurretik³⁰. Aldi hartan, Lope Garzia Salazarrek Bienandanzas e Fortunas-en dioenez, Gipuzkoako Batzar Nagusiak ahaide nagusien kontra matxinatu ziren oinaztar eta ganboatarrei men egin gabe, "gotorleku guztiak errautsi zizkieten, Probintzia osoan ez zuen bat berak ere zutik iraun". Domenjonek, Batzar Nagusietako eskribaua izanik, Gipuzkoako hiriak elkartu zituen, politikoki egituratu, eta Enrike IV. ahul baten laguntzaz ahaide nagusiak garaitzea lortu zuen. Gipuzkoako Batzar Nagusiei egonkortasuna eman zien, esportazio-alkatetza lortu zuen Gipuzkoarentzat

28. *Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen aldizkaria*, 1967, 1. liburuxka, 103. or.

29. *Libro Homenaje a Tolosa*, 105. or.

30. Serapio Mujika. *RIEV*. XXV. tomoa.



Aranburutarren oinetxea (Gaur egun Zabala jauregia)

eta parte hartze sutsua izan zuen Enrike IV.aren gaitzak, Gaon zerga-biltzailearen heriotza zela eta. Arrazoi horrexegatik geroago Errege-erregin Katolikoaren aurrean Gipuzkoa zergak ordaintzetik salbuetsita egotea defendatu zuen. Bitartekari izan zen beraz, Gipuzkoaren bi foru garrantzitsuenen onarpenean: zerga-salbuespena eta mugak. Horren arabera Gipuzkoa –Zirikia Gaiztarrok dioenez–³¹ “Espainiako mugatik kanpo” geratzen zen. Bi foru horien jatorria antzinatean galtzen da, baina Domenjonek berriazko berrespena eta onarpena lortu zuen. Ingalaterra eta Gipuzkoaren arteko 1482ko hitzarmenean negoziatzaileetako bat izan zen. Gipuzkoarren ordezkariak (Andia ez zen ordezkari izan) Bidaniako Usarraga baserriko Batzarrean hautatu zituzten. Jarretera ordenako zaldun izendatu izanaz ez dago datu ziurrik, baina Ingalaterrako erregeak saritu zuela jasota dago; lehenago aipatu ditugun urteko hogei libera horiek.

Andia merkataritza klasetik iritsi zen gipuzkoar politikara eta inguru hartan izan zuen jarduerak klase horren garaipena ekarri zuen ahaide nagusien klase zaharren aldean.

Andia negozio gizonaren ordezkari bada, Idiakeztarrak gizarte klase berrien prototipoak dira, Andiak sortzen lagundu zuen araubide politikoaren ondorioa: idazkari eta indianoena. Azken horiek nagusi izan ziren Euskal Herriaren hiru mendeko lozorroan. Euskal ministro eta idazkarien zerrenda luzean nabarmenena, beharbada, Alonso Idiaketz izan zen. Idiaketz Idiakaitz deituraren forma gazteleratua da. Anoeta garai hartan Tolosaren jurisdikziopekoa zen eta Idiakeztarrak bertakoak ziren jatorriz. Karlos V.aren konfiantzako gizona izanik, Alonsok parte hartu zuen Felipe II.a izango zenaren eta Portugalgo Mariaren arteko ezkontza aurreko negoziatioetan. Negoziazio horien ondorioz Crépyko bakea etorri zen Frantzia eta Espainiaren artean. Garibaik zaldun noble eta jakintsua deitu zion. Joan Luis Vives Alonsoren lagun handia izan zen eta berari eskaini zion “De conscribendis epistolis” liburua.

Bere anaia Lope, ordea, indianoa zen, XVI. mendean sortutako maila berrikoa. Amerikan borrokatu zuen Albaradorekin batera Guatemalako konkistan. Aberastu ondoren sorterrira itzuli eta Azkoitiako Idiakeztar batekin ezkondu zen.

Urrutiko herrialdeetan aberastutako gizarte maila horiek irabazitako dirua etxe ederrak eraikitzeko erabili zuten. Idiakeztarrek Tolosa zaharreko alderik tipiko eta gogoangarrienean eraiki zuten beren jauregia, Plaza Zaharrean, gaur egun Idiaketz izenekoan. Harresien gainean eraiki zuten Alonsori egin zioten emakida baten bidez³²: etxe hartako ondorengoa Lope, Alonsoren anaia izan zen, horrek Donostiako kale Nagusian beste etxe bat baitzuen. Donostiako etxe hartan Frantziako Frantzisko I.a egon zen preso. Lope, Petronila Idiaketzekin ezkondu zen eta alabak izan zituzten. Alaba zaharrena,

31. Aipatutako lana.

32. Gorosabel. *Bosquejo...* 1. edizioa, 307. or.

Juana, Eibarko Antonio Lopez de Isasi Kuntunegieta Orbearekin ezkondu zen. Beste alaba bat, Isabel, Joan de Martinez Rekalde Bilboko almirantearekin ezkondu zen. Alargundu ondoren Arte eta Teknologia ikastetxea sortu zuen Tolosan, San Frantziskoko komentuan. Idiakezko maiorazkoan, Martin, Juana-ren semea, izan zen hurrengoa. Martinek, Idiakez, amaren deitura hartu zuen, aitaren Isasi abizena atzetik jarriz. Jauregia berriz eraiki zuen eta eraikinaren aurrealdean armari handi bat jarri zuen bertan Idiakez, lurramendi, Idiakez (Azkoitikoa), Isasi eta Orbeakoak agertzen direla (esan beharra dago Alonso eta Lope, Joan Idiakez eta Katalina lurramendiren semeak zirela).

Idiakezko etxea, ondorengotza zuzenaz, XVIII. mendean Bernardo Zabala Artega-Lazkanoren eskuetara igaro zen. Ondorengoa arrebaren semea izan zen Felix Maria Samaniego Zabala alegilari handia eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen sortzaileetako bat. 1775ean Samaniego Tolosako alkatea zen eta hauxe idatzi zion osabari, Peñafloidako kondeari: "Tolosa, 1775eko apirila. Osaba: Orain arte igaro ditudan une latzak ez ditut gehiago luzatu nahi. Jainkoari eskerrak bakean eta ohorez irten naiz udaletxetik eta atzean utzi ditut alkate izateak Aste Santuan dakartzan ardurak, kolazioetako gehiegikeriak, Bazkoko bazkari eta beste zeremonia gogaikarri batzuk, udaletxekoekin gertatutako sagardo eta kartzela kontuak eta beste zenbait gorabehera larri. Horrek bakarrik alendu ahal izan nau alegietatik, hala ere hilabete honetan gudarosteak ikuskatu ondoren ekingo diot zeregin horri". Jovellanos-ek bisita egin zion Tolosan, lurramendiko etxean eta bere egunerokoan hauxe idatzi zuen: "1791ko abuztuaren 26an. Ilunabarrean Tolosara iritsi. Samaniegori bisita egin lurramendin duen etxean. Elkarrizketa atsegina izan genuen. Bilboko eremuari buruz egin duen deskripzioaz zenbait bertso errezi-tatu eta egiten ari den bildumatik gatzez betetako bi ipuin berri irakurri diz-kigu. Hamarrak jo arte egon naiz eta bihar berarekin bazkaltzeko erregua egin digu"

XVII. mendeko bigarren erdialdeko Gipuzkoako jarduera politikoaren arda-tza Migel Aranburu Aburruza izan zen. Aranburu jatorriz Salsoroko orubekoa zen. Orube hori Tolosakoetatik zaharretakoa da, izan ere, 1346ko erroldan agertzen da. XVI. mendean hasieran Salsoroko andrea, Katalina, Bidaniako Joanes Aburruzarekin ezkondu zen, jatorriz Bidaniakoa. Ezkontza horren ondorioz bi seme izan zituzten: Joan eta Domingo. Lehenbizikoa auzoko Mariana Elduaienekin ezkondu zen, Elduaien batxilerraren alaba bakarrarekin. Beren etxea parrokia-etxea da gaur egun. Bigarrenak Salsoroko etxea oinordetzan hartu zuen. Leonor Larretarekin ezkondu eta seme bat izan zuten: Domingo Aburruza doktorea. Domingo Katalina Aranbururekin ezkondu ondoren alaba bakar bat izan zuten: Maria. Mariak Salsoroko etxea hartu zuen oinordetzan eta Pedro Aranburu kapitainarekin ezkondu zen. Senarra lrungoa zen jatorriz eta artezale handia zen. Salsoroko etxea, Aranburu ize-naz ezaguna dena, berreraiki egin zuen. Artisten babeslea izan zen eta haie-tako batzuk Tolosara ekarri zituen, besteak beste Tolosako Andre Mariaren erretaularen egilea³³.

33. S. Insausti.

Migel, Pedro Aranburu eta Maria Aburuzaren semea, Gipuzkoako gizonik garrantzitsuenen izan zen XVII. mendearen bigarren erdialdean, eta Frantzisko Elias de Tejadaren iritziz “Gipuzkoan inoiz izan den legelarik handiena”³⁴. Gortean hezi zuten Joan Austriakoarekin batera eta harekin egon zen Portugalgo gerran. Aita hiltzean, 1662an, Tolosara etorri eta Gipuzkoaren zerbitzuan jardun zuen. Gipuzkoako historian ondo jantzia, probintziako artxiboa ordenatu zuen, bertan zeuden paperen aurkibidea egin zuen, Henao apaiza eta historialariaren korrespontsala izan zen, izan ere, datuak eman zizkion eta haren lana zuzendu. Baina Aranbururen zereginik garrantzitsuenen Gipuzkoako Foruak biltzea izan zen. Zeregin hori probintziaren aspaldiko asmoa zen. Aranbururi 1685ean bilketa hura egiteko eskaria egin eta gauzatu egin zuen. Horretarako lege eta ordenantza guztiak jatorrizko agiriekin erkatu eta konpultsatu egin zituen. Bera arduratu zen erregearen inprimatzeko baimena lortzeaz. Inprimatzeko lanetan esku hartze zuzena izan zuen, 1695ean Olatzeko Andre Mariako Batzarretan Probintziak ahalordea eman ondoren. Aranburuk Bernardo Ugarte Donostiako inprimatzailearekin egin zuen inprimatzeko kontratua. Inprimatzeko makinak Tolosara eramane zituen eta Salsoro edo Aranburu etxean instalatu. Foruen liburuaren inprimatze lanak 1697ko apirilaren 17an bukatu ziren.

Migel Aranburu goi mailako idazlea izan zen; Foruen liburuari idatzitako hitzurreak hala frogatzen du, izan ere, Gipuzkoari buruz inoiz idatzi den deskriptorik zoragarriena da, beharbada Euskal Herriari zion maitasunaren eraginez agerian uzten du “lilura” hori. Era berean, bereak dira lege berezi edo foruen hitzurreak. Migel Aranburu nekeak jota hil zela esan daiteke, izan ere, 1697ko irailaren 15ean goizaldeko bostetatik seietara Foruen liburuaren gainean hil baitzen Tolosako etxean. Etxearen kanpoaldeak Migelek utzi zuen bezala dirau leku bakarti bezain xarmangarri batean, Andre Mariaren elizatik begiratzuz gero eskuinaldera dagoen plazatxo batean.

Jose Basilio Aranburu Atorrasagasti Migel Aranbururen semea zen, Villafuerteseko lehenengo kondea. Titulu hori Felipe V.ak eman zion Ondorengotza-gerran, 1744an Villedafrencheko batailan izan zuen parte hartzeagatik.

Erdi Aroan, hiria sortu aurretik ere, lurramenditarren leinuak loratze aldia bizi izan zuen. Gaur egun miserikordia dagoen tokian zuten etxea, hirigunetik aldentuta. Lurramendi etxeak gerlari asko eman zituen, adibidez: Joanes lurramendi. Joanesez, Nafarroako erregearen agindupean Aragoiko erregearen kontra izandako borroketan, armarriz zatikatua irabazi zuen, zitori horidun gurutzarekin eta Katalunia eta Aragoiko barrekin. Etxe horretako beste gerlari bat Martin Ruiz lurreamendi edo lurramendi izan zen. Martinek Granadako gerran parte hartu zuen. Gauza bitxia da gerlari bikainak izan arren, hirigunean ez bizitzea, bandokideak ez izatea eta ahaide nagusizat hartuak ez izatea. Jeronimo Ruiz lurramendi XVII. mendean Idiakez etxeko oinordekoarekin, Maria Klara Idiakez-Isasirekin, ezkondu zen. Maria Klara Martinen

34. *La Provincia de Guipúzcoa*. Minotauro. Madril, 125. or.

alaba zen eta ezkontza horren bidez Tolosako bi etxe horiek elkartu egin ziren.

Kale Nagusiko Atodotarren etxea Aranburu-Aburruzatarren eta Alonso ldiakezen gizarte maila berekoa zen. Etxearen aurrealdeak zutik dirau oraindik lehoi erpekari baten armarrria duela apaingarri.

XV. mendearen amaieran edo XVI.aren hasieran, Atodotarrak, Aburruzatarak bezala, Tolosan bizi ziren. Bi etheen jatorria lur laua da, bata Bidaniakoa eta bestea Albisturkoa. XVI. mendean etxe horretako kide bat nabarmendu zen, Fernando Atodo (bere etxea mendeetan Ferminenea izenez ezaguna izan da). Felipe II.aren enbaxadorea izan zen Erroman, konde palatinoa eta San Pedro eta San Pauloren zalduna Julio III.a Aita Santuaren emakidaz 1554. urtean. Ordena militar hori –Jose Olarra Garmendiak, Erroman Espainiako Arte Ederretako Akademiaren idazkari izandako tolosar bikainak emandako datuen arabera– Leon XI.a aita santuak sortu zuen 1520an. Ordenaren ezauzgarria urrezko lepoko bat zen, domina batean San Pedro eta San Pauloren irudiak zintzilik zituela. Helburua kristau fedearen defentsa zen otomandarren kontra.

Tolosak politikoki pisu handia izan du beti Gipuzkoako historian. Donostiarekin batera, Batzar Nagusietan boto gehien zituena zen. Korrejidorearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza txandakatu egiten zen Tolosa, Donostia, Azpeitia eta Azkoitiaren artean. Hasiera batean Ahaldu Nagusia (Gipuzkoako agintari nagusia) izateko ezinbestekoa zen hiri horietako biztanlea izatea, hori dela eta, egoera pribilejiatua zuten.

Arestian esan dugunez, Foruen arabera, Gipuzkoak ez zuen hiriburu bakarra, lau baino. Baina XVIII. mendean gobernu organoak toki batean egoteko beharra ikusi zuen. Orduan, 1799an egin ziren Batzar Nagusietan Korrejimendu eta Foru Aldundiaren egoitza Tolosan finkatzeko erabakia hartu zen. Gorteeek Donostia hiriburu izendatu arren, liberalen garaipenaren ondorioz, 1820an, Tolosa Gipuzkoako hiriburu bihurtu zen, Tolosan baitzeuden Gipuzkoako agintari nagusia eta Foru Aldundia. Angulemako dukearen armadari esker Fernando VII.a agintera itzuli zenean, absolutismoa ezarri zuen eta hiriburuari dagokionez, berriz ere foru arauak indarrean sartu ziren. Moderatuak gobernu zentralera iristean, eta hamar urtez (1844-1854), Tolosako liberalek hiria Gipuzkoako hiriburua izendatzea lortu zuten beren alderdikideen laguntzaz. Progresisten garaipenarekin, 1854an, hiriburua Donostia izateko behin betiko erabakia hartu zen.

Frantsesen inbasioak hasiz geroztik, 1794koa eta batez ere Napoleonena, Tolosak, beste toki batzuek bezala, politika mailako egoera latzak bizi izan zituen. Frantziar Iraultzak askatasunari buruz, herrien burujabetzari buruz, etab. ekarri zituen ideia berriek apostoliko eta liberalen arteko lehenengo banaketa sortarazi zuten, eta geroago karlista eta liberalen artean. Lehen Karlistadaren ondoren, alde batetik bai Tolosan bai Euskal Herri osoan liberal moderatu eta foruzaleak ziren nagusi. Beste aldetik liberal progresistak zeuden Villafuerteseko kondea buru zutela. Kondea Ordizian jaiotakoa

izan arren, garai hartan Tolosako biztanlea zen Salsoro-Aranburu etxea oinordetzan hartu ondoren.

Bigarren Karlista Gerratearen ostean, Tolosako lehengo udaletxeek libelak izaten jarraitu zuten, baina handik urte gutxira karlistak nagusitu ziren. Necedalek lehenengo, eta Mellak gero, eragindako zatiketen ondorioz, integristak, tradizionalistak eta karlistak edo jaimistak agertu ziren.

Mugimendu politikoarekin batera XIX. mendearen amaieran langileen mugimendua hasi zen. Lehenengoaren ordezkari nagusia Arana Goiri izan zen. 1906an “Cooperativa Internacional” sortu zen; 1907an “Juventud Republicana”, gero “Centro Republicano” bihurtuko zena; 1907an ere, “Centro Vasco”; 1915ean, Unión General de Trabajadores; 1916an “Sindicato Católico”; 1919an, “Sindicatos Libres”; urte horretan, “Cooperativa San Jose”; hogeita hamarreko hamarkadan “Acción Vasca” alderdia eta “Solidaridad de Obreros Vascos”; 1930ean, “Casa del Pueblo” sozialista ireki zuten; urte batzuk geroago Batzoki berria, eta 36ko gerra hasi aurretik “Circulo Tradicionalista” berria.

Gizarte gorabehera ugari izan dira, baina ez 1917koa bezain garrantzitsua eta larria, izan ere, urte hartako greba orokorrak ia bi hilabete iraun zuen.

XX. mendean Tolosan erantzukizun handia izan zuten politikoak jaió ziren, esaterako; Ladislao Zabala Etxaide, Gipuzkoako Foru Aldundiko presidentea 1913tik 1918ra, garai hartan euskal Foru Aldundiek zuzendutako mugimendu autonomista handia gertatu zen; Luis Castro Casal, 1931n Bizkaiko gobernadore zibila izateaz gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko batzorde kudeatzailekoa 1932-33 eta 1935ean 1936ko otsailera arte. Ramon Bandres Azkue, Tolosan jaiotakoa ez bazen ere, udaletxeko idazkaria izan zen bitartean bertan bizi izan zen. 1931n Nafarroako gobernadore zibila izendatu zuten. Ramon Aldasoro Gipuzkoako lehenengo gobernadore zibil errepublikarra izan zen. Fidel Azurza Aranburu Foru Aldundiko presidentea izan zen 1936an eta Jose Maria Caballero Arsuaga 1952 eta 1957an.

6. ERLIJOA

Hasiera batean Tolosan lau parrokia zeuden: lurreko Ama Birjina, San Esteban, Santa Luzi eta Santa Maria. Migel Aranbururen arabera³⁵, eta hari jarraituz Gorosabel eta Urrozen arabera ere, Santa Luzi ez zen parrokia izan; haien ustez parrokia ondokoa zen, Madalenakoa, aurretik Santiago parrokia izan zena. Hori dela eta, Santa Mariako kabildoa uztailaren 24an behartuta zegoen eliza horretan bezperak kantatzera. Jose Zunzunegik “El reino de Navarra y el obispado de Pamplona” izeneko liburuan Tolosako “Corriedo”ko parrokiei buruz hitz egiten du; bertan Laskorain eta beste parrokia batzuek

35. A. Henaori idatzitako gutuna, *Antigüedades de Cantabria* izeneko liburuan.



Jurramendi jauregia eta S. Migel eliza. (Gaur egun Miserikordia eta eretxea).

gain, Zamako parrokia aipatzen du. Sebastian Insaustiren iritziz³⁶, Laskorain San Esteban da, eta Zama Santa Luzi: “azken horren ondoan “Ezama” base-
ria dago eta ziurrenez hortik hartuko zuen auzoak izena”.

6.1. Santa Maria

Antzinako Santa Maria eliza 1501ean erre zen Tolosa osoa suntsitu zuen sute izugarrian. Berreraikitze lanak 1503an hasi zituzten. Planoak Gorostia-
gak egin zituen, Diego Belauntzak lagunduta. Udalerrriaren diru baliabideak
urriak zirenez lanak luzatu egin ziren. Ez dakigu zehaztasunez noiz eman
zuten lehenengo meza eliza berrian. Gorosabelen ustez 1568an izan zen,
Urrozten ustez, berriz, 1587an. Dena dela, badakigu 1576an amaitu zituztela
gurutzadurako lanak eta Monsignore Mayorak dioenez (“Libro de Decretos y
Mandatos de los obispos de Pamplona”, 23. or.) 1541eko azaroaren 25ean
meza nagusia eman zuten. Ziurrenez lanek iraun bitartean, eliza atondu
egingo zuten elizkizunak egin ahal izateko. 1609an azken ukitua eman zioten
harriari aurreko hormak ixteko; handik urte batzuetara, 1761ean, Martin
Carrera dorre biak eta erdiko kanpai-horma egiten hasi zen. Hiru urte gero-
ago Joan A. Uzkudun kontratatu zuten atzeko portada egin zezan, eta bertan
Santiago Marsiliren San Joan Bautistaren estatua jarri zuten.

Joanes Antxieta 1588an hil egin zen, aldare nagusiko sagraioa egiten ari
zela; lana amaitu gabe utzi zuen eta alargunak senarraren ofizialei agindu
zien lana amaitzeko. Erretaularen fabrika Bernabe Corderok egin zuen, eta
barroko estiloko eskultura Bazcardok eta Uretak; planoak Salsoro etxeko
Pedro Aranbururen bidez Tolosara etorritako Pedro Torrek egin zituen³⁷. Esti-
loari dagokionez, alde handia zegoen 1647ko erretaularen estilo barrokoaren
eta Antxietaren berpizkundeko sagraioaren artean. Barrokoa pil-pilean zego-
enean Antxietaren sagraioa kendu eta Corderoren beste bat jarri zuten.
1781ean eliza erre egin zen eta aldare guztiak suntsitu egin ziren, gaur egun
Dolores izenez ezaguna dena izan ezik (Joan Bautista Sagues Arsuaga artisa-
ren lana, 1722-1730).

Aipaturiko sutea dela eta, elizaren barrualdea konpondu behar izan
zuten. Obraren zuzendaria Silvestre Perez izan zen. Berak egin zituen aldare
nagusia eta estilo neoklasikoko alboak ere. Erretako aldarearen orde-
z, 1829an Antonio Zabala bergararrak eginiko Amabirjinaren Jasokundearen
koadro handi bat jarri zuten. Alboko aldareetako San Joan, San Jose, San
Inazio eta San Antonioren estatuak Jose Piquer eskultoreak egin zituen.
Rosariokoa berriz, Taneren lana da.

San Frantzisko komentua desagertu zenean, Santa Maria elizak etekina
atera zien desamortizazio legeei. Kristoren hiletako eta Pietateko erliebe
ederrak, Jovellanosek hainbeste miretsi zituenak, komentu horretatik Santa

36. Aranzazu aldizkaria. 1955, 360 zk., 80. or.

37. Ikus *Bizimodu sozio-politiko*a izeneko atala.

Mariara eraman, eta San Inazioaren eta San Joanen aldareetan jarri zituzten. Ebanjelioaren ondoko lehenengo aldareko Bengoetxearen Kristoa Gurutzean, Ama Birjina eta San Joan erliebeak Tolosan gorde diren eskulturen artean nabarmenenak eta ederrenak dira.

Silvestre Perezen esanei jarraituz, elizako habeak sendotu egin zituzten. Sendotze horrek monumentu bikainaren armonia itsustu egin zuen.

6.2. San Frantzisko eliza

Santa Maria eliza Tolosa hiriak egin zuen; San Frantzisko eta Santa Klara komentuak berriz, familia batek, hiriak nagusitzearen ondorioz sortu zen egoera ekonomikoari esker aberastutako familia batek, hain zuzen ere.

San Frantzisko 1587an sortu zen, Pedro Mendizorrotzek eman zuen dohaintzari esker. Handik hamar urtera obrak egiten hasi ziren Frai Migel Aranbururen planoak oinarritzat hartuta. Komentua eta eliza garai batean harresiaz kanpo zegoen alderdi batean eraiki zituzten, gaur egun San Frantzisko ibiltokia izenez ezagutzen dugun horretan. Armoniaz gain, elizaren barrualdean nabarmena da Bengoetxea handiaren aldare nagusiko erretaula; goiko zatia urte batzuk geroagokoa, beste pertsona batek egin zuen eta kalitate eskasagoa du. Arestian erliebeak Santa Mariara eraman zituztela aipatu dugu, eta baliteke parrokia horretako “kalbarioa” San Frantziskotik ekarritakoa izatea.

Desamortizazioaren ondorioz hiriak komentua eta inguruko lurrak hartu zituen eta elizan dendak jarri zituzten; 1845ean, esate baterako, Markos Elorriok kapera bat alokatu zuen 27 errealean.

Ezin ditugu eliza horren gorabehera guztiak aztertu, baina jakin badakigu 1915etik aurrera Vico nuntzio kardenalak frantziskotarren elkarte berrezarri zuela elizaren ondoko etxe batean eta urte horretan bertan beste komentu bat egiteko lanak hasi zirela, desagertutakoaren orde.

6.3. Santa Klara komentua

Migel Perez Mendiola Iturrizak eta haren emazteak hamar mila dukat eman zituzten klaratarren komentua sortzeko; Santa Mariako kabildoa ez zen bat etorri erabaki horrekin, patronatuari zegozkion arazoak zirela eta³⁸. Santa Klara komentua Santa Maria Madalenako basilizan eta ondoko etxean sortzeko asmoa zuten, baina ez zuten horretarako baimenik eman hiriko harresietatik oso urrun zegoela uste baitzuten. Azkenean, klaratarren elkarte sortzailearen etxean, Korreo kaleko Iturriza dorretxean, eta ondoko kale Nagusiko Antonio Iriarteren dorretxean ezarri zuten, Belena kaleka desagertu

38. Patronatua sortzaileak berak eman behar zion hiriri.

taraziz. 1612tik 1666ra arte aipaturiko dorretxeetan egon ziren, handik aurrera dorretxeak utzi, eta harresiaz kanpoko beste komentu batera joan ziren, atearen eta Nafarroa zubiaren inguruan dagoenera.

Komentu berria Mexikon bizi ziren Joan Urrutia eta Joaquin Zabaleta tolosar indianoek emandako diruaz egin zuten. Aldare nagusiko erretaularen arkitektura lana Inazio Iberok 1744ko kontratuz eginikoa da; barroko estiloko imajinak berriz, Gargollorenak dira. Insaustiren arabera³⁹ berpizkundeko tabernakuloa baliteke Antxietak Santa Marian jartzeko egindakoa izatea.

Komentuan bertan Ama Birjinaren irudi zoragarria dago; gure ustez XIII. mende aurrekoa izan daiteke, baina ez dago ziurtasun osoz esaterik. Batzuek lurreko Ama Birjina misterioetsua dela uste dute, baina “guk dakigula behintzat, ezin da baieztatu Santa Klarako koruko Ama Birjina eta lurrekoa berdinak direla”⁴⁰.

6.4. Baselizak eta beste eliza batzuk

lurre: 1333an emandako eskrituraren bidez lurreko parrokia zaharra Santa Maria parrokiari elkartu zitzaion. 1476an San Blasi eskainitako aldea jartzea baimendu zen. XVI. mendean, Pacheco gotzaina etorri zenean, artean lurre izenaz ezaguna zen. Gaur egun hilerri berriaren inguruan dagoen San Blas basiliza da; bertan ez dago Ama Birjinaren irudiaren arrastorik.

San Esteban: Tolosako antzinako lau parrokietakoa bat izan zen. Tolosako irteeran zegoen, Gaztelako errege bidearen ondoan. Basiliza bihurtuta 1955 aldera desagertu egin zen. Bertan zegoen portada erromaniko ederra 1918an Santa María elizara eraman eta bataiategiaren sarreran jarri zuten. 1382an emandako eskrituraren bidez Santa Maria parrokiari elkartu zitzaion.

Santa Luzi eta Santa Maria Madalena: Aranburu, Gorosabel eta Urrozen iritiz, Santa Maria Madalena antzina parrokia izan zen. Auzoan bertan beste basiliza bat zegoen, Santa Luzi izenekoa; dirudenez, hori ere parrokia izan zen (Zunzunegi, Insausti). Ez dakigu noiz elkartu zitzaion Santa Mariakoari, baina beste biak bezalaxe, XIV. mendean, parrokiei zegozkien titulua eta eskubideak zituen⁴¹.

Basiliza biak Uzturre mendiaren magaletan zeuden, Behobiako errege bidetik gertu; hiriak bi basilizak saldu zituen 1775ean, erruki etxe berria eraikitzeko gastuak ordaindu ahal izateko.

39. *III Centenario del Monasterio de Santa Clara*, Tolosa, 1966.

40. F. Zabala, *III Centenario del Monasterio de Santa Clara*, Tolosa, 1966.

41. Insausti, *ibidem*.

Era berean, desagertutako baselizak ditugu lurreamendiko San Migel eta San Zipriano; lehenengoa gaur egun lurreamendi familiaren erruki etxea da. Bigarrena 1682an eraiki zuten, Urkizu bidearen ondoan; gaur egun bertan erdi eraitsitako hormak baino ez ditugu bertan ikusiko.

Izaskun Andre Maria: Tolosako eta bere artzapez-barrutiko herrien zaindaria da. Izen bereko mendian dago, Uzturre pean. Aita Lizarralde "Andra Mari" izeneko liburuan Ama Birjinaren irudia sagar itxurakoen artean sailkatu zuen, eta XIII. mendearen bigarren erdialdekotzat edo XIV. mendekotzat jo zuen. 1418an Nafarroako Lanzeloto Iruñeko gotzainaren buldaz Izaskun Andre Mariak Santa Maria elizarekin bat egin zuen. 1956ean Izaskungo elizarako bidea egin zuten. Santutegi horren historiari buruzko liburuen artean aipatu beharrekoak dira, batetik, XVII. mendearen azken herenean Antonio Aldabalde presbiteroak idatzitako "De Yurre a Izaskun" eskuizkribu argitaragabea eta bestetik, Wenceslao Mayora Telleria artzapez parrokoaren "Historia de Nuestra Señora de Izaskun".

Arrameleko San Joan. Tradizioaren arabera baseliza hori Tenplarioen ordenakoa izan zen. 1671n Jerusalemgo San Joan Abegitsuaren Ordenak Diego Zabala Arteagari saldu zion, eta harek, berriz, hiriari birsaldu. Bai Gorosabelek, bai Urrozek uste dute XIV. mendearen hasieran Tenplarioen ordena sakanatu zenean, San Joandarrek hartu zutela berriro. Gaur egun bertan dagoen eraikuntza 1849koa da⁴².

Bedaioiko eliza. Agirietan 1568tik aurrera agertzen bada ere, 1808 urtera arte ez zen eliza izan; lehenengo bataio agiria 1568ko urtarrilaren 28koa da eta lehenengo heriotza agiria hurrengo egunekoa, urtarrilaren 29koa, alegia. Garai hartan elizkizunak Amezketako parrokoak egiten zituen; parroko horrek zenbait auzi izan zituen auzoaren jabe ziren Berastegitarrekin.

Aldabako Eliza. XVI. mendekoa da. "Aldabako baseliza inguruko elizen beharrian edo nahiari erantzuteko eraiki zen; izan ere, letania eta errogatiba prozesioak amaitzeko eta bertan meza santua esateko leku sakratua behar zuten"⁴³. Baseliza hutsik zegoen leku batean eraiki zen, Aldaba mendian ez baitzegoen etxerik. XVII. mendearen azken aldera baselizaren ondoan baserri bat eraiki zuten eta gainontzeko guztiak XVIII. mendean. Baserri horiek eraikitzeaz batera bertako eliztarren ardua nori zegokion erabaki behar izan zuten; espediente eta auzi luzeak izan eta gero, Tolosako parrokoaren eginbeharra zela erabaki zuten, 1804an eliza laguntzaile izendatu zuten arte. 1962an nortasun eta edertasun handiko eliza berria inauguratu zuten.

Urkizuko San Pedro Eliza. Baseliza hori kapilau baten ardurapean zegoen; kapilautzak desagertu zirenean, Tolosako Santa Maria parrokiako apaiz lagunkideak hartu zuen elizaren ardua kolazio-kapilautza gisa.

42. Aipatutako lanak.

43. Insausti, R. Ondarra eta L.M. Elosgi. *Banco de Tolosa*, 1964.

Eskola Pioen Ikastegia. 1878an Luisa Zurbano Vargasko markesak etxea, baratzea eta hogeï mila ogerleko utzi zituen oinordetzan ikastetxea sortzeko. Aita Eskolapioek onartu egin zuten dohaintza, baina hartutako etxea ez zen ez nahikoa ezta egokia ere ikastetxe gisa erabiltzeko; hori dela eta, Tolosako Udalarekin honako hitzarmena izenpetu zuten: Udalak Atadi kaleko aldundi zaharraren gozamina eman zien Aita Eskolapioei eta horiek lehen mailako irakaskuntzako eskolak dohainik eman behar zituzten. Udalaren eta Eskolapioen arteko hitzarmena 1880ko apirilaren 17an izenpetu zen. Handik sei urtera Vargasko markesen baratzean eraikuntza lanak hasi zituzten eta markesen jauregia kapera bihurtu zuten.

Karitateko Jesusen Mirabeak. 1886an heldu ziren Tolosara eta Santa Maria kaleko etxe batean kokatu ziren. 1898an Zabala Eznarriagatarrek kapilautza sortu zuten aipaturiko Mirabeetan. Antonio Elosegik 1900eko abuztuaren 14an Belateko pasealekuan lursail bat eman zien; bertan gaur egungo komentua eraiki zuten, 1902an inauguratu zena.

Jesusen Alaben Komentua. 1888an institutuaren sortzaileak, Jesusen Kandida Maria Amak urteko 1.750 pezetan Vega del Sella kondeen etxea eta baratzea alokatu egin zituen eta urte horretan bertan, urriaren 12an, eskolak ematen hasi ziren. 1889an ondasunak erosi egin zituen. 1892an San Jose ikastetxearen eraikina amaitu eta 1905ean eliza sagaratu egin zuten.

Sortzez Garbiaren Ikastetxea. Frantziako mojak 1903ko uztailaren 2an heldu ziren Julia Ansolaren babespean. Atodo jauregi zaharrean kokatu ziren eta urte horretan bertan nesken ikastetxea ireki zuten. 1923an San Franzisko ibiltokiko eraikin berrira joan ziren.

Sakramentu Txit Santuko Erlijiosoak (Sakramentinoak). Hauek ere Frantziatik etorri ziren. Tolosara 1907ko uztailaren 16an heldu eta Rondilla kaleko Arzeluz etxean kokatu ziren. 1913an Ursino de Zabala Larretak Nafarroako bidean (gaur egun Sakramentu kalea) emandako lurretan etxe berriko kapera inauguratu zuten. 1928an ikastetxea handitu eta eliza eraiki zuten; Mateo Mujika Gasteizko gotzainak izan zuen eliza berri hori sagaratzeko ardura. 1967an Corpus Christiko elizan beste parrokia bat eraiki zuten.

Mariaren Bihotz Garbiaren Seme Misiolariak. 1914an Gorosabel kaleko etxe batean kokatu ziren. “Juancito” etxea, Jose Migel Garikanoren etxea eta Jose A. Arsuagaren teilape bat erosi zuten, eta “Iturri-txiki” izeneko plaza-txoan 1922rako eliza eta komentua eraiki zituzten.

Hirutasun Txit Santuaren Etxea (Hirutasuneko ordena). Eusebia Ignazia Franconiri esker sortu zen; izan ere, 1915eko irailaren 25ean emakume horrek Usabal ibarreko “Iru-zubi” baserria dohaintzan eman zien Hirutasuneko ahizpei. Etxea 1921ean inauguratu zen.

Mariaren Bihotz Garbiaren Alabak, “Misiolari Kordi-marianak” izenez ere ezagunak, 1958an “Gainberri” lursailean kokatu ziren; bertan Izaskun Andre Mariaren ikastetxea sortu zuten. Ikasle asko bertaratu zen, eta horren ondo-



Atodo Jauregia

rioz, aipatutako “Gain- berri” etxearen ondoan beste eraikin bat egin behar izan zuten.

XIX. mendearen amaieratik aurrera erlijio alorrean eklosio handia gertatu zen. Tolosa hiriak 15.000 biztanle baino gutxiago izanik (1950 urtea aurretik) zortzi kongregazio ezarri eta beste bat, frantziskotarrena, berrezarri egin ziren.

7. BENEFIZENTZIA

1577ko Udaleko akten arabera, Madalena basilizan karitate etxe bat zegoen, baina ez zen basiliza horren menpekoa; 1621ean saldu egin zuten eta dirua Santa Maria kaleko ospitale zaharrerako erabili zuten. Ospitalea txikia zen, 16 ohe baino ez zituen⁴⁴; hori dela eta, berria egiteko beharrezana ikusi zuten. 1774an ospitale berria eta erruki etxea amaitu zituzten Arrameleko San Joan elizaren inguruan, Arabako etxeko maiorazkoko lurretan. Ospitalea eta erruki etxea ordaintzeko Santa Luzi eta Santa Maria Madalenako basilizak eta ospitale zaharra saldu behar izan zituzten.

1813an Arremeleko ospitalea edo Berria deiturikoa erre egin zuten; 1821ean berreraiki eta 1830ean, San Bizente Paul Ahizpek gobernuaren ardura hartzeaz batera, handitu egin zuten. 1848an berriz ere handitu egin zuten eta 1851tik aurrera bertan babesgabeei laguntza eskaintzen hasi ziren. 1907ko abenduaren 29an Migel Muñoa hil zenean, bere fundaziorako oinordetzan utzitako lurretan eraikin handi bat egin zuten, Eugenio Insaustik, Kandida Ibarren oinordekoak emandako diruaz. lurreamedia orubeko eraikin handi horren lehenengo harria 1913an jarri zen. Gaur egun benefizentziako zerbitzuak ematen dira bertan.

GURUTZE GORRIA. Gurutze Gorriko herri-biltzarra 1924an eratu zen eta Gorosabel Eskoletan Udalak utzitako lokaletan sorostegia ezarri zuten. Irakaskuntzaren beharrezan erantzuteko “Soto-Etxaniz” fundazioa San Franzisko ibiltokiko “Jesusen Bihotza” etxera eraman zuten. Lokal horretan “Esne Tanta” izeneko zerbitzua eskaintzen zen. Leku aldatzea 1965eko otsailaren 16an egin zen.

8. KULTUR JARDUERA

Euskal Herriaren historiako XV. mendearen bigarren erdialdeko gertaerek, hau da, bakea berrezartzeak eta Andiairen ekimenez foru-araubidea berregituratzeak, eragina izan zuten kultura arloan. Dagoeneko aipatu dugu Alonso Idiakenez humanista handiaren erudizioa, baina XVI. mendean inor nabarmendu bazen Zaldibia batxilerra izan zen. Zaldibia aitoren semeen leinukoa izateaz gain, kronologikoki lehenengo gipuzkoar historialaria ere izan zen⁴⁵. Foru

44. Gorosabel, *Bosquejo...*, 343 or.

45. Dorrea Arramele plazatxoan zuen, baina XVIII. mendean bota egin zuten.

Aldundiak “Suma de las cosas cantábricas” Zaldibiaren obra nagusiaren argitalpen arretatsua egin du, Fausto Arozenaren zuzendaritza lan bikain eta zuhurraz. Zaldibia, geroago Gorosabel bezala, historialaria eta legegizona izan zen. Zaldibia historiari baliatu zen foru-araubide politikoa ezarri zen garaiaren inguruko “euskal teoria politikoa oinarriak” azaltzeko⁴⁶. “Compilación de Cédulas y Cartas Reales, Provisiones y Privilegios dados a la Provincia de Guipúzcoa” eta berak aitortu bezala “armagintzari buruzko trataduxoa” idatzi zituen. Arozenaren arabera, 1575ean hil zen.

XVII. mendeko pertsonajerik nabarmenena, Migel Aranburu izan zen, azaletik bada ere jadanik aipatu duguna. XVIII. mendean, berriz, Samaniego fabulagilea ageri da udalerrinari lotua, lehen esan dugun bezala, Tolosako alkatea izan baitzen.

Tomas Sorregieta astrologoa, presbiteroa eta “Semana Hispano-Vascongada” lanaren egilea ere mende horretakoa da.

Diego Lazkano tolosar heterodoxoa XVIII. mendean azken aldera eta XIX. mendean hasieran bizi izan zen. Hasiera batean fraide frantziskotarra izan zen; sekularizatu ondoren, Kristoren Eskolako Tolosako Ermandadean sartu eta Lasarteko Brigiden kaperaua izan zen. Frantses zaletu egin zen eta Frantziako armada Gipuzkoatik irten zenean Frantziara joan zen. “Satisfacción a los cargos que se hacen al Presbítero Don Diego de Lazcano...” lana idatzi zuen; bertan ezkontzak kontratu zibilaren izaera zuela defendatu zuen⁴⁷.

XIX. mendean hasieran Villafuertesko kondea aipatu beharra dago. Migel Aranbururen ondorengo zuzena izan zen; hori dela eta, Salsoro-Aranburu etxea oinordetzan jarauntsi zuen. Fisika eta natur zientzietako ikasketak egin zituen Sorbonan. Jorge Humboltekin posta harremana izan zuen eta politikan ere aritu zen. Bi konstituzio aldiak politikari burua izan zen (1813-14 eta 1820-23); bigarren aldi horretan kargua utzi egin zuen, ez baitzuen Donostia Gipuzkoako hiriburutzat onartu nahi.

Pablo Gorosabel XVIII. mendeko pertsonajerik nabarmenena izan zen. Zaldibia bezala legegizona eta historialaria izan zen. Espainiako lehenengo Zigor Kodea eta “Espainiako Zigor Zuzenbidearen Azterketa” argitaratu zituen; baina arrakasta handiena historialari lanetan lortu zuen. Zenbait esparrutan ez zuen parerik, adibidez, zuzenean jasotako datuak emateko. Berak idatzitako lanen artean aipatu beharrekoak dira honakoak: “Bosquejo de las Antigüedades, Gobierno y Administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa”, “Diccionario Histórico Geográfico de Guipúzcoa” “Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra” eta “Noticias de

46. F. Elías Tejada eta Gabriella Percopo. *La Provincia de Guipúzcoa*, Minotauro, 1965, 65. or.

47. Lazkanoren inguruan ikus honako hauek: Tolosako historiari buruzko liburua, S. Insausti, *Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko Boletina*, F. Arozena, Brumas de Nuestra Historia, Zabala Ozamiz-Tramoya, Bizkaiko Historia.

las Cosas Memorables de Guipúzcoa”. 1803an Tolosan jaio eta 1868ko urtarrilaren 23an Donostian hil zen.

Nemesio Uranga ere garai hartakoa da. 1880an Moreti eskainitako “Jesus et la Religion Naturelle” izeneko liburua argitaratu zuen Parisen.

Aipatu behar dugun beste historialari bat XX. mendean hil zen Eugenio Urroz presbiteroa da, “Compendio Historial de la Villa de Tolosa” idatzi zuena, alegia.

XIX. eta XX. mendeen artean kokatu behar dugu V. Arakistain, euskal gaien inguruko eleberrigilea. Deban jaio eta Tolosan bizi izan zen, bertan jabetzaren erregistrozailer lanetan aritu baitzen. “El basojaun de Etumeta”, “Leyendas Vasco-Cántabras”, etab. lan ospetsuak idatzi zituen.

Tolosarrak eta Tolosan ikasi zuten asko, XIX. mendearen erdialdeko euskal literaturaren berpizkundean murgilduta aurki ditzakegu. Hori dela eta, Tolosak euskal literaturaren garapenean eragin nabarmena izan zuela esan dezakegu; nahikoa da adibide gisa, Patrizio Orkaiztegi, Lizardi, Orixe, Lopez-Mendizabal, Labaien, Arrese, Zabala... izenak aipatzea.

Euskaraz idatzi zutenen artean aipatu beharrekoak dira Ramon Artola, Ramos Azkarate, Valeriano Mokoroa herri olerkariak. Horien ondoan Emeterio Arrese dugu; XIX. mende bukaeran jaio eta XX. mendean lanak argitaratu zituzten beste euskal olerkari askok bezalaxe etorri handia eta izaera neorromantikoa zuen. Arresen 1913an “Nere bidean” kaleratu zuen, 1928an “Txindor” eta 1952an “Olerki berizte”. “Leidor” opera libretoaren egilea ere izan zen. Bidaiazale bohemio hau Tolosan hil zen 1954an. Arreseren garaikideak izan ziren Blas Pradere apaiz historialaria, eta Lertxundi eskolapio gramatikagilea.

Jose Maria Agirre “Xabier Lizardi” olerkari handia eta “euskal lirikaren gailurrik garaiena”⁴⁸ Zarautzen jaio zen, baina Tolosan ikasi, bizi eta bertan hil zen 1933an. Hizkuntzaren zizelkari bikaina izan zen, beste literatura batzuetako olerkari handien mailakoa. Erroan eta funtsean olerkaria izanik, euskaraz inoiz idatzitako metaforarik ederrenak sortu zituen.

Nahiz eta bertan jaiotakoa izan ez, Nikolas Ormaetxea “Orixe”k harreman estua izan zuen Tolosarekin. Euskal literaturaren erraldoietako bat izan zen, “agian, zenbait alderditatik euskal literaturaren idazlerik garrantzitsuena”⁴⁹.

Patrizio Orkaiztegi ere Tolosan jaio ez, baina bertan bizi izandakoen artean dago; izan ere, 1880tik 1924an hil zen arte parroko izan zen Tolosan. Euskal joskera ondo aztertu zuen eta erabilerari buruzko zenbait liburu idatzi zituen, hala nola, “Its-joskera” eta honen argitalpen osotua “Euskara modu onargarrian idazteko oharrak”. “Euskal-esnalea” elkartea sortu zenean

48. Koldo Mitxelena, *Euskal Literaturaren Historia*, Minotauro, Madril, 146. or.

49. Koldo Mitxelena, *Ibidem*.

Arturo Campion lehendakari izendatu zuten, Patrizio lehenengo presidente orde, eta Julio Urkijo bigarren presidente orde.

Kultura arloan aipatu beharrekoa da Isaac Lopez Mendizabal poligrafo tolosarra. Argitaratzaile eta inprimatzaileen familia ospetsu baten ondorengoa izan zen; Zuzenbideko eta Filosofia eta Letretako doktoregoak lortu zituen Madrilgo Unibertsitatean eta Menendez Pelayoren ikaslea izan zen. Lan eskergea egin zuen bai filologia, bai ikerketa, bai euskal historiaren alorrean ere. Liburu ugari idatzi zituen, “Los Fueros de Guipúzcoa”, “Cantabria, la guerra cantábrica y el País Vasco en tiempo de Augusto”, “Diccionario castellano-euskera y euskera-castellano” “Xabierto”, “Umearen laguna”, “Euskal deiturak”, “Breve Historia del País Vasco” eta “Gramática vasca abreviada”, besteak beste. Euskaltzaindiko ohorezko kidea zen.

Euskaltzain osoen artean Antonio Labaien eta Antonio Zabala aipatu behar ditugu. Labaien antzerkigileen artean nagusiena izan zen; hogeitakomediatik gora idatzi zituen eta “California-kukua” izeneko lanagatik euskal antzerkiaren “Gipuzkoa” saria lortu zuen. “Antzerki Euskaroa” lana bi aletan argitaratu zuen. “Orixe”ren lagun handia zenez, “Euskaldunak” olerkia laburbildu zuen. “Escenas paralelas” idatzi zuen, “Antzerti” aldizkariaren zuzendaria izan zen eta Brech, Ionesco, Max Frisch, Dürrenmatt eta abarren lanak euskarara itzuli zituen.

Antonio Zabalaren egitekorik nagusia bertsoaritza eta euskal herri-literatura aztertzea izan da. Gure olerkari zaharren lanak, gehienak “bertso papar” soiletan sakabanatuta zeudenak, bildu egin zituen. Auspoa argitaletxearen sortzailea eta zuzendaria izan zen, eta 1969rako hirurogeita hamazazpi ale argitaratu zituen, guztiak euskaraz idatziak. “Txirrita”, “Pello Errotaren itzala”, “Pernando Amezketarra, bertsolaria”, “Juan eta Pello Zabaleta, bertsolariak”... izeneko lanak idatzi zituen.

Euskaraz idatzi zutenen artean honakoak ere baditugu, Jose Eizagirre, “Ekaizpean” eleberriarren eta “Basotarrak” operaren egilea eta Joan Antonio Irazusta, Aita Villasantek hainbeste goretzi zituen “Juanixio” “Bizitza garratza da” lanen egilea. Euskaraz idatzi zuten idazleei buruzko atalari amaiera emateko, Andres Amonarriz, Manuel Urreta eta Estanislao Urruzola aipatu behar ditugu, azken hori zenbait antzerki lanen egilea.

Arnaud Agirre fraidea euskal idazlea izateaz gain, irakaslea ere izan zen. Isaac Lopez-Mendizabalaren iritziz Tolosan jaio zen, Errementari kaleko Burrentxalieta etxean. Etxeak ataria aipatutako kalean zuen, baina albo Errementari-Arostegieta zeharkako kalera jotzen zuen. Albo horren erdialdean iturria zegoen; etxea behera bota zutenean berria egiteko (gaur egun Arostegieta kaleko 9.a) aurrealdearen mutur batera eraman eta horrela aipaturiko iturria gorde ahal izan zuten. Agirre frantziar nazionalizatu zen eta Yuvenal Martyr anaia izena hartu zuen. Berak idatzitako lanen artean “Vocabulaire trilingue Française-Espagnol-Basque” izeneko dugu.

Gaztelera idatzi zuten euskal idazleen artean Jose Ariztimuño “Aitzol”, “Yakintza” aldizkariaren zuzendaria eta euskal literatura eta historiara buruzko

hamaika lanen egilea, Jose Olarra, Jose Zunzunegi, Sebastian Insausti, Manuel Laborde, Zezilia G. Gilarte, Jesus Elosegi, Julio Eiara, Iñaki Linazasoro, Jose Maria Doussinague eta Jose Julio Martinez, Bilboko "El Mensajero del Corazón de Jesús" izeneko aldizkariaren zuzendaria aipatu behar ditugu.

Jose Olarra Espainiako Arte Ederretako Akademiako idazkaria izan zen Erroman eta Maria Luisa Larramendi andrearekin "Miscelánea de Noticias Romanas acerca de Don Martin de Azpikueta, doctor navarro" lana argitaratu zuen. Olarra humanista handia prestakuntza eta heldutasun sasoirik hobereanean zegoela hil zen.

Doussinague diplomatiko eta historialariak Errege-Erregina Katolikoei buruzko zenbait obra idatzi zituen.

Zunzunegi, Gasteizko Teologia Fakultateko dekanoa izandakoa, elizaren historian aditua izan zen; lan ugari argitaratu ditu, baina horien artean nabarmentzena "El reino de Navarra y el obispado de Pamplona" izenekoa da.

Lan honetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu Sebastian Insausti historialari arretatsua eta Gorosabelen tradizioaren jarraitzailea. Euskal Herriko historiari buruzko hainbat aldizkari eta argitalpenetan idatzi zuen. "Alava, Guipúzcoa y Vizcaya hasta la erección de la diócesis de Vitoria" lanean, esate baterako, "Intentos de Guipúzcoa por conseguir obispo o vicario general propio" izenekoa aurki dezakegu. "Las Parroquias de Guipúzcoa en 1862" liburua ere berak idatzitakoa da.

Elosegik ere historialari lanetan jardun zuen eta oraintsu Iztuetari buruzko liburua argitaratu du.

Egunkarietan idatzi ohi zuten idazleen artean Zezilia G. Gilarte eta Iñaki Linazasoro aipatu behar ditugu. Zezilia G. Gilartek eleberria, antzerkia, biografia eta saiakera landu izan ditu. Luzaroan Mexikon bizi izan da. Liburu asko idatzi ditu, besteak beste, "Sor Juana Inés de la Cruz", "La Trampa"...

Linazasorok "El alma rie" eta "La otra Guipúzcoa" lanetan argi utzi zuen Gipuzkoari buruzko ezagutza sakona zuela.

Antzerkirako zaletasun handia erakustez gain, Julio Eiara eleberri laburrean ere nabarmendu zen. 1962an "Guipúzcoa" antzerki sariko finalista izatea lortu zuen "Tiempo sin salida" izeneko lanagatik.

Manuel Labordek injinero ikasketak eta euskal industriari buruzko ezagutza berezia uztartu zituen euskal metalurgiaren inguruko hainbat lan eta Bergarako Seminarioko ikerketa zientifikoak egiteko.

Justo Mokoroa, Valeriano Mokoroa olerkariaren semea, idazle elebiduna izan zen. Euskaraz idatzitako idazkiei gazteleraz idatzitakoa "Genio y lengua" gaineratu behar diegu, Ibar ezizena erabiliz argitaratua. Herriko gaietan sakondu zuenen artean Isaac Amunarriz idazlea aipatu behar dugu.

8.1. Eskultura eta pintura

Dagoeneko aipatu dugu kokapen geografikoak Tolosa merkataritza plaza izatea eragin zuela; baina XVI. mendetik aurrera (Gipuzkoa baketu ondoren) horretaz gain, gune artistiko izatea lortu zuen. Tolosan jardun zuten artistak, bai bertan jaiotakoak bai bertara joandakoak ere, ugariak izan ziren. Sebastian Insaustik eskultore-artista guzti horien azterketa zehatza egin zuen⁵⁰. Horietako askok, hala nola, Barrenetxeak, Basaiazek, Goikoetxeak, Larreatarrak, Sagestarrak, Latjerak, Zatarainek eta Corderok, tailerrak Tolosan bazituzten ere, beste herri batzuetarako lan egiten zuten. XIX. mendean Tolosako eskulturaren gainbehera hasi zen.

XX. mendean irudi eskolaren, gero Arte eta Lanbide Eskola izango zena-ren babespean pintura artearen berpizkunde xumea nabaritu zen zenbait artistari esker: Pantaleon Josue (Tolosako hainbat bazter bereziren irudigilea, horietako batzuk gaur egun aldatu edo desagertu egin direnak), Lekuona, Caballero, Ansola, Gordon, Gebara, Tapia, eta Iruretari esker, alegia. Azken horrek 1881eko Estatu mailako erakusketan hirugarren domina eskuratu zuen; Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza ere jaso zuen Erroman ikasketak jarraitzeko.

Tolosarekin harremana izan zuten artisten artean Dario de Regoyos aipatu behar dugu, izan ere, "España Negra" izeneko lanean eta "Viernes Santo en Tolosa" koadro ezagunean Tolosa du oinarri. Gustavo de Maeztu eta Cabanas ere Tolosan bizi izan ziren. Era berean, ezin ditugu aipatu gabe utzi XX. mendean bizi izan ziren David Alvarez, gazte zela hil zena, Migel Anjel Alvarez, G. Hombrados Oñatibia (idazlea eta gehien bat historiari buruzko ikerlanen egilea), Landi-Sorondo, Matxin Labaien artistak. Eskultoreen artean Joan Lope dugu, Mariano Benlliureren tailerrean ikasi zuena.

8.2. Musika

Tolosan musika arteak garapen zabala eta jarraitua izan zuen, neurri handi batean, XIX. mendean bertan irakasle lanetan jardun zuten konposito-reei esker.

Beste kultura alorrak bezalaxe, musikaren artea ere XVI. mendetik aurrera garatu zen. Agirien arabera 1540an, artzain bisita izan zenean, egon bazeuden organo-jole eta organo bikainak⁵¹. 1603an kapera maisu lanpostua sortu zuten⁵². Ordutik aurrera organo-jole eta kapera maisu ugari ibili ziren, 1867an Felipe Gorriti organo-joleak oposaketa bidez ordura arte Kandido Aguaik betetzen zuen lanpostua lortu arte.

50. *Libro Homenaje a Tolosa, VII Centenario*, 1956.

51. *Cincuentenario del Banco de Tolosa*, 130. or.

52. *Ibidem*.

Felipe Gorriti Arakilen jaio eta Tolosan hil zen 1896an, gaur egun bere izena duen plazan; plaza horretan 1849ko apirilaren 3an Karlos Alberto de Saboya, Zerdeñako Erregeak abdikatu egin zuen, Italiako Erregea zen Victor Manuel semearen alde.

Gorriti erlijio-musikaren alorrean XIX. mendearen bigarren erdialdeko konpositore nagusia izan zen. 1881etik aurrera zenbait urtetan Parisko nazioarteko organo-jole eta kapera maisu elkartearen lehiaketetan lehenengo saria eskuratu zuen eta azken urteetan izenik ere ez zuen eman behar izan bertara aurkezteko. Ospetsuak dira “Surge Propera”, “Misereres”, “Grande”, “Viejo”, gaur egun dagoen organoa inauguratzeko (1885ean) konposatu zuen “Misa en Do”, “Misa en Si bemol”, “Ut queant laxis” lau ahots eta orkestrarako motetea, bezperetarako bertsoak, “Magnificat” konposizioak. Irakaskuntza alorrean lan handia egin zuen, eta horren ondorioz eskola sortzea lortu zuen. Ikasleen artean Bizente Goikoetxea, Ignazio Buska Sagastizabal, Calixto Barcos, Bentura Zapirain, Bonifazio Etxeberria, Telleriarrak,... eta tolosar ikasleen artean Tomas Mujika, Montevideoko kontserbatorioko zuzendaria; Anjel Arsuaga, Madrilgo organo-jolea; Maximino Olariaga, zornotzarra; Fabian Furundarena, piano kontzertista; Justo Saizar, Bergara eta Tolosako banden zuzendaria eta guztien gainetik Eduardo Mokoroa Arbilla.

Eduardo Mokoroa, Gorritiren jarraitzailea eta ikaslerik begikoena, Tolosan jaio zen 1867an, eta bertan hil zen 1958an. Mokoroa irakaskuntzan jardun zuen eta horretaz gain, konpositorea eta ekintza gizona ere izan zen. Horren adibide garbia da 1901ean Tolosako Orfeoia, 1913ra arte iraun zuena, eta Musika zentroa sortu izana. 1924an Mokoroaren bitartekaritzari esker Musika Kulturaren Elkartearen Ordezkaritza ezarri zuten Tolosan; ordezkarri lanak bete zituen eta programazio arduraduna ere izan zen. Ordezkaritza ezarri zenetik 1932ra arte 86 kontzertu eman zituzten; horietako asko ospe handiko artistek eman ere, hala nola, Alexandro Uninsky, Walter Giesecking eta Wilhelm Kempff piano-joleek, Andres Segovia gitarrak eta Wendling eta Zika laukoteek.

Eduardo Mokoroaren hasierako konposizio lan batek, “Euskal-soñua” izenekoak, 1891ko Lore Jokoetan lehenengo saria jaso zuen. 1896an konposizio txapelketan lehen mailako Gurutzea eta diploma eskuratu zituen eta 1899ko Hainauteko Nazioarteko Lehiaketetan (Belgika) berriz, lehenengo lau sariak. Lan ugari konposatu zituen. Erlijiozko lanen artean aipatzekoak dira “La Lamentación de Miércoles Santo”, “Miserere” bost edo sei ahots mistotarako, “Misa Pastoral” hiru ahots misto eta organorako, “Misa en Si bemol” Gorritiri eskainia, eta Inmaculada egunean Santa Maria elizan kantatzen den “Misa in honorem Sancti Joannis Baptistae” izeneko obra handia. Lan profanoak banda, abesbatza eta orkestrarako idatzita daude; horien artean aipatu beharrekoa da Emeterio Arrese bere lagun handiaren “Leidor” izeneko liburuan oinarrituta idatzi zuen lau ataleko drama lirikoa.

Eduardo Mokoroa Alfontso X.a Jakitunaren zalduna, Tolosako seme kutuna, Hainauteko “Academie Scientifique, Artistique et Litteraire”ko “honoris causa” kidea eta, Donostiako eta Iruñeko Orfeoietakoa eta Tolosako Felipe

Gorriti Eskolaniako ohorezko zuzendaria izan zen. Asko dira bere ikasle izandakoak, hala nola, Gaintza eta Alberdi, Getxoko eta Barakaldoko bandetako zuzendariak, hurrenez hurren; Lope, orkestra eta banda zuzendaria Argentinan; Feliziano eta Bizente Beobide, Tolosa eta Urtuellako bandetako zuzendariak, hurrenez hurren; Norberto Almandoz, Sevillako Kontserbatorioko zuzendaria eta Katedraleko kapera maisua; Felix Azurza, Bergarako organojolea eta luzaroan Tolosako bandako zuzendariordea, eta Ignazio Gonzalez, Bergarako bandako zuzendaria. Baina guztien artean inor nabarmendu bazen, hori haren seme Ignazio Mokoroa Danborenea izan zen, Tolosako Santa Maria elizan aitaren ondorengo organojole lanetan.

Ignazio Mokoroa interpretatzaile bikaina izateaz gain, sentiberatasun apartako konpositorea izan zen. Ezin ditugu bere lan guztiak aipatu, baina nabarmenen artean honako hauek ditugu: "Erri meza", "Miserere", "Tu es Sacerdos", "Impromptu" izenekoak eta piano, organo eta kororako beste zenbait konposizio.

Aitak bezalaxe, Ignazio Mokoroak ere, ikasle asko izan zuen: Joan Azaldegi, Australian orkestra zuzendaritzan ibilitakoa, Carmen Okariz, Donostiako Musika Kontserbatorioko piano irakaslea eta kontzertista, edota Salustiano Balza piano-jole eta irakaslea, azken hori Ignaziorena baino, Eduardo aitaren ikaslea izan zela esan badaiteke ere.

Javier Bello Portu bi Mokoroatarren ikaslea izan zen. Ikasketak Parisko kontserbatorioan, Salzburgoan eta Sienako Akademian osatu zituen. 1943an Felipe Gorritiren Eskolania abesbatza mistoa sortu zuen Tolosan. Iruñeko "Duguna" baletetako orkestrak zuzendu zituen. Iruñeko Santa Zezilia eta Donostiako Kontserbatorioko orkestrako zuzendaria izan zen. Beste batzuen artean, "El Carnaval de Lanz" suit sinfonikoa, "Pays Basque" hiru ataleko korala, "Llanto a Martín Zalacain", "A mi flor" obrak konposatu zituen. Javier Bello Portu kultura handiko gizona izan zen, Tolosako musika artea gailurrera eraman zuten Gorritiren eta Mokoroatarren jarraitzaile bikaina.

Jokin Pildain tolosarra ere konpositore eta organojole bikaina izan zen. Prestakuntza handiko musikaria izateaz gain, konpositore aparta izan zen, jaso zituen sariak erakusten digutenez.

Agirien arabera, musika kapera XVII. mendearen hasierakoa da⁵³. Joan Arsuaga Musika Akademiako irakaslea lehenengo biolina zela, gehienbat harizko musika tresnek osatzen zuten. Aipaturiko akademia horren susperraldia XIX. mendean etorri zen Gorritiren eskutik. Mende horretan bertan eta Gorriti zuzendaria zela musika banda abian jarri zen; ondorengo zuzendariak honakoak hauek izan ziren: Montilla, Eduardo Mokoroa, Justo Saizar, Feliziano Beobide, Felipe Bernard eta Ruiz Bona.

53. *Cincuentenario del Banco de Tolosa* liburua.

Ignazio Baleztenaren iritzi⁵⁴, XVI. mendeaz geroztik Tolosako txistulariek Iruñeko San Fermin jaietan parte hartu zuten. Gaur egun Migel Martinez de Lezea da txistulari bandaren zuzendaria.

9. IRAKASKUNTZA

Irakaskuntzari buruzko lehenengo datu idatziak 1556koak dira; datu horien arabera, garai hartan lehen mailako hiru irakasle zeuden. Udalak neurri batean baino ez zuen irakasleen soldata ordaintzen, izan ere, larunbatero azokan limosna eskatzeko baimena zuten. Egoera zein zen ikusita norbanako batzuek, Zaldibia batxiler ospetsuak eta Joanes Bereterbidek, besteak beste, diru kopuru handiak eman zituzten.

Zaldibia Joan Martinez Olazabal izendatu zuen testamentu-betearazle, hildakoaren borondatearen berri baitzuen. Borondate hori betetzeko Martinez Olazabalek latineko katedra sortu eta apaiz eta frantziskotarren ardurapean utzi zuen. 1885ean batxilerraren kapitalaren azken titulu transferiezinak Udalak besterenganatu zituen, hirira ura ekartzeak sortu zituen gastuak ordaintzeko.


1540 urte inguruan Domingo de Bereterbide tolosarrak, Granadako Errege-Erregina Katolikoan kaperako kaperaua zenak, dirua utzi zuen sei tolosarri goi-mailako ikasketak ordaintzeko Santa Katalinako ikastetxean, eta tolosarrik izan ezean sei gipuzkoarri.

Fundazioetan nabarmenena Isabel Idiakezek, Rekalde almirantearen alargunak, 1612an frantziskotarren komentuan egindakoa da, Arte eta Teknologia San Jose Ikastetxea izenekoa. Ikastetxe horretan humanitateak, filosofia eta teologia irakasten zuten eta sekularrek ere bertan ikasteko eta graduatzeko aukera zuten. Goi-mailako irakaskuntza zentro hori unibertsitate bilaka zitekeen, XIX. mendearen hasieran desagertu ez balitz.

1807an Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak Irudi Ikastegia sortu zuen Plaza Berriko Toriles etxean. Ikastetxe horrek gorabehera handiak izan zituen, eta azkenean, Arte eta Lanbide Eskola bihurtu zen. Akademia horren garrantzia, lehenago aipatu dugunez, bertako zenbait irakasleren mailari zor zaio.

Irakaskuntza ertainean Bernardo Fanoren Humanitate Ikastetxea aipatu beharra dago. Ikastetxea, 1840an sortua, Toriles eraikinean zegoen Bergarako Seminarioaren (Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearena izandakoa) gehigarri gisa. Irakasleen lansariak hiriak ordaintzen zituen.

54. Javier Bello Porturen hitzak *Libro Homenaje a Tolosa* izenekoetik hartuta, 1956.



San Frantzisko eliza

Gaur egun Eskola Pioetan 750 haurrek dihardute lehen mailako irakasuntzan 16 ikasgelatan banatuta; 652 ikasle bigarren mailakoan eta beste zenbait papergileen eskola komertzialean.

Lehen eta bigarren mailako ikastetxeen artean honako hauek aipa ditza-gegu: San Jose eta Sortzez Garbiaren Ikastetxeak, zenbait akademia eta Izaskun ikastetxea. Jesusen Bihotzeko Anaien ikastetxea ere bazegoen, baina 40eko hamarkadaren azken aldera desagertu egin zen.

Arte eta Lanbide Eskola lanbide-heziketako ikastetxe bilakatu da. Azken urteotan eraikin moderno batean Tekniko Papergileen Eskola Sindikala sortu da.

Gaur egun lehen mailako irakaskuntzako eskolak honako hauek dira: Grupo Gorosabel (1907an inauguratutako eraikina), Grupo Berazubi, 1960koa, San Blas eta Izaskun Andre Maria eskola mistoa, bi eskola unitario Olarrainen, Aldaba eta Bedaioko eskola mistoak, Santa Luziko bi eskola mistoak eta Urkizuko eskola. Auzoetako ikasleak alde batera utzita, lehen mailako irakaskuntzan 2.020 ikaslek dihardute eta bigarren mailakoan 722. Bigarren mailako irakaskuntzako institutu baten beharra dago.

10. INPRIMATZAILEAK

Tolosan inprimatu zen lehenengo liburua “Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos Usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas de la Muy N. y L. Provincia de Guipúzcoa” izan zen. Bernardo Ugarte Gipuzkoako inprimatzailea zenak inprimatu zuen 1696an. Bernardo gain, Ugartetarrek, Pedrok eta Ferminen ere Tolosan jardun zuten⁵⁵.

Etxe nagusia La Lamatarrena izan zen, XVIII. mendearen erdialdera sortua. Frantzisko la Lama Tolosan bizi izan zen, baina jaiotzez zegamarra eta jatorriz bizkaitarra zen. Aita hil zenean, alaba Goiazko Joan Mendizabalekin ezkondu zen eta enpresaren ardura hartu zuen. Bikote horren alaba, Juliana Mendizabal de la Lama, Eusebio Lopez Iodosarrarekin ezkondu eta 1929an alargundu zen. Bikotearen semeak Isaac Lopez Mendizabal poligrafoak jarraitu zuen aurrekoek hasitako lana⁵⁶. Etenaldi baten ondotik, gaur egun arte iraun du Javier Lopez-Mendizabalen zuzendaritzapean. Argitaletxearen ezaugarriarik nabarmenena argitaraturiko lanen kalitatea izan zen, hala nola, Aizkibelen “Diccionario etimológico”, A. Moreten “Anales del Reino de Navarra”, Pablo Gorosabelen “Noticia de las Cosas Memorables de Guipúzcoa”, Novia Salcedoren “Diccionario etimológico”, Arturo Campionen “Gramática de los cuatro dialectos de la lengua bascongada”, A. Henaoren “Las antigüedades de Cantabria”, Iztuetaren “Guipuzkoako dantzak”, Mogelen “Versiones Bascongadas de varias arengas”, Arreseren “Nere bidean” etab.

55. Ikus 32. eta 33. oharra.

56. Ikus 48. oharra.



Santa Klara komentua, 1666an sortua

1830etik 1845era inprenta bat egon zen Joan Manuel de la Lamaren izenean.

XIX. mendearen bigarren erdialdearen hasieran Gurrutxaga inprenta sortu zen eta bertan Gorosabelen hiztegia argitaratu zuten. Handik gutxira, bigarren karlista gerratea amaitu eta gero, beste inprenta bat sortu zuten, Mugerza izenekoa, eta bertan lan interesgarri batzuk argitaratu zituzten. Andres Gorosabelek ere tailerra zeukan Tolosan eta “Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira” liburua argitaratu zuen. XIX. mendearen erdialdetik karlista gerratea amaitu arte Gipuzkoako inprenta Tolosan egon zen. Tapiaren tailerra ere aspaldikoa da.

Beste batzuen artean Tolosan honako aldizkari hauek argitaratu ziren: “Euskal-egia” astekari errepublikarra, 1894ko irailaren 5etik aurrera, “La Defensa Social” joera katolikokoa, 1915eko “Beotibar” eta “El Radical Blanco”, 1917ko “Ecos del Oria” “Bolas”, 1946an Santa Maria parrokiak argitaratutako “Izaskun” “Tolosa en Fiestas”, besteak beste.

11. KIROLAK

11.1. Pilota

Pilota jokoari buruz ari garela, gure ustez Joan Irigoienek betebeteen asmatu zuen Cille Jullianen aipamenarekin: “badirudi mende bakoitzak euskal zibilizazioari ohitura aldaezin bat ekartzen diola”. Jose Iguaranek gai horretaz aritzean hauxe dio: “Baliteke “euskal pilota jokoa” erabili beharrean “pilotako euskal jokoa” erabiliko bagenu eztabaida asko ebakitzea”⁵⁷.

Antzina Tolosako Plaza Berrian luzean izeneko pilota modalitateko partidak jokatzen zituzten. Kirol gune hori zabaldu ahal izateko Gorosabelek dio XVIII. mendearen bigarren hamarkadan kontzejuetxearen eraikuntza atzeratu eta antzinako Toriles etxea erraustu behar izan zituztela. Toriles etxe horretan bertan, lehenengo solairuan, trinketea zegoen; beste bat Arramele zubiaren ondoan, antzinako erruki etxearen albo batean; Santa Klara kalean bi zeuden, hori dela eta, tolosar zaharrek “Trinkete kalea” esaten zioten.

1890ean San Frantzisko ibiltokian pilotaleku irekia inauguratu zuten zesta puntako partidu bat jokatuz. 1907an, erremontea hastapenetan zegoela, partidua jokatu zuten San Joane, “Mardura”k, Ganborenak eta “Porta”ek⁵⁸. 1900era arte Plaza Berrian eta geroago aipatutako frontoi horretan palanka jokoko apustuak egin ohi ziren. 1935ean San Frantzisko ibiltokiko Beotibar pilotalekua estali egin zuten; bertan azken urteotako eskularirik onenek jokatu dute.

57. *Banco de Tolosa* aldizkaria, 1964.

58. Luis Bombín, *Historia, Ciencia y Código del Juego de Pelota*.

Guk dakigula Tolosan ibilitako pilotarien artean aspaldikoena Manuel Lekuona “Urxalle” da. 1828an jaio zen Oartzunen, baina gazte-gaztetarik Tolosan bizi izan zen. Jaiotzez tolosarrak zirenen artean honako hauek aipatu ditugu: Antonio Labaka (hau ere beste batzuk bezalaxe Ameriketara joan zen zori bila eta bertatik 1895ean itzuli zen), Julian Gaintza (1877an jaiotakoa), Frantzisko Rekondo (1890tik 1904ra bitartean Hegoamerikako, Frantzia, Italia eta Espainiako pilotalekuetan jokatzeko ibilitakoa eta erremontean aitzindaria), Brau, “Brau I” eta “Brau II” donostiarren lehengusua⁵⁹, eta geroagokoen artean Joan Marquet eta Nikasio Bastarrika.

1924an Parisko Olinpiadetan Felix Gastesi txapeldun olinpikoa izan zen eskuko modalitatean. Elduaingo Migel Soroa Tolosako kirolari handien artean aipatu behar dugu. Profesionaletan 1951ko urtarrilaren 13an debutatu zuen eta ia oraindik ere jardunean dabil. 1954an Espainiako Eskuko Pilota Txapelketan Barberitori irabazi zion eta txapela eskuratu zuen; hurrengo urtean Arriaran II.ak lortu zuen garaipena. Era berean, 1954an Soroa lau eta erdiko txapelketan garaile atera zen Ogetari irabazi ondoren.

1951n sortutako puntako pilota eskolak hainbat pilotari bikain eman zituen. Horien artean ditugu Zeberio, Tximela eta Altuna. Eskolan ibili ez arren, Urkola anaiak nabarmendu egin ziren espezialitate horretan.

Gure herriak pilotarekin duen harremana ez da bertan jaiotako eta ibilitako pilotarien jardunetara mugatzen, izan ere, pilotan jokatzeko beharrezkoak diren zenbait tresna Tolosan egin ohi ziren. Jose Arrietak, adibidez, eskularruak egiteko tailerra zuen eta 1895ean bera hil zenean semeak, Frantziskok⁶⁰, hartu zuen aitaren lanbidea. Venancio Eizagirre saskigilea berriz, erremonteko zestak egiten lehenengo eskulangileen artean dugu⁶¹.

11.2. Herri kirolak

Euskal kirolaren adierazpen nabarmenena pilota izan bada ere, badira beste kirol batzuk eguneroko zereginetan oinarrituta eta posturen ziztadek suspertuta gure artean “herri kirolak” izenaz hedatu direnak.

Tolosaren kokapena dela eta, baserri giroan oinarritutako kirolek garrantzia handia hartu zuten; horien artean aipatu behar dira “Amezketarra” eta “Juanzarrena” korrikalarien arteko norgehiagokak, eta oraintsuago Aiako Txikito, Sukunza, Arruizko Txikito, Irizar eta Aldazko Txikitoren artekoak. Hasieran Plaza Berrian eta geroago zezen plazan tolosarrek aizkora joko mota guztiak ikusteko aukera izan zuten, aspaldian Santa Ageda, Atxunberri eta

59. Op. Cit.

60. Parrokiako orkestrako lehenengo biolina ere izandakoa.

61. Luis Bombín, Op. Cit.

Keixetaren eskutik, eta geroago Arria, Korta, Luxia, Garziarena, Latasa eta Polipasorenetik.

Herri kirolei buruz ari garela ezin dezakegu aipatu gabe utzi Pedro Joan Garmendia itzaina. Pedro Joan kaletarra izan arren (Gorosabel kaleko 4an jaiotakoa), “Tigre” eta “Pardo” izeneko idi bikote ospetsuarekin Euskal Herriko probaleku guztietan garaipena lortu zuen eta marka gaindigaitzak ezarri zituen. Itzain horren meriturik handiena egun osoan abeltzaintzan aritzea izan zen.

11.3. Beste zenbait kirol

Gaur egun eskia Tolosan hain errotuta egotea XX. mendearen hasieran “O. Mustad y Cia” enpresako norvegiar industria gizonaei zor zaie. 1909an “Eski Club Tolosano” taldea sortu zen, Euskal Herriko lehenengoa. Ibilbide bikaina egin zuen eta mende erdiz hamaika kirol lehiaketetan atzerriko txapelketetan parte hartu zuen. Azken urteotan elkartearen jarduna eten egin da eta lekukoa “Club Alpino Uzturre” izenekoak hartu du; izan ere, talde horrek aurreko tituluak berrestea lortu du eta garaipen handiak erdietsi ditu, hala nola, Espainiako txapelketa, Lekuona, Arrazola, Laredo, Lobo eta beste kirolari batzuen eskutik. Horien artean leku nabarmena lortu du Frantzisko Tuduri kirolari gailenak.

Uzturre taldearekin lehiari aritu zirenen artean OARGI eski taldea aipatu beharra dago.

Futbol jarduera 1907tik aurrera hasi zen gure hirian. Hasiera batean Plaza Berrian aritzen ziren, eta geroago Zumardi Haundiko lursail lasaiagoe-tan. Lehenengo kirol elkarteak “Saso club” eta haurren “Small club” taldeak izan ziren. Handik gutxira “Club Sportivo Tolosano” izeneko kirol taldea sortu zen; talde horrek lehenengo partidua “O. Mustad” enpresaren lursailetan jokatu zituen. Dirudinez, zelaiegokia zen futboleko aritzeko, hori dela eta Gipuzkoako beste talde hasi berrien artean inbidia sortzen zuen. Garai hartakoak ditugu Rikardo larza, Ramon Moraiz, Luis Goñi, Gregorio eta Mariano Arsuaga, Florencio Anza... jokalaritok. “Club Sportivo Tolosano” taldea, bigarren mailako eskualde txapelketetan arrakasta handiz parte hartu ondoren, 1915ean desagertu zen eta berarekin batera lehenengo kirol zelaia⁶². Handik gutxira “Iberia, C.F.”, “Union Club”, Txaramako “Aurrera” eta “Club Sportivo” berria taldeak jendarrera azaldu ziren. Tolosako kirol jarduerari buruz ari garela badaude bereziki aipatu beharreko bi data, 1922 eta 1923 urteak, alegia. Lehenengoan, “Tolosa C.F.” taldea sortu zen; bigarrenean berriz, Berazubi Estadioa (errautsezko lehenengo atletismo-pista) inauguratu zuten. Estadioari loturik ezin dugu ahaztu Adrian Laskibar arkitektoa, estadio berriko lanarengatik dirurik hartu gabe aritu baitzen. Ordutik aurrera “Tolosa C.F.” gure herriko kirol jardueraren ardatz bihurtu zen. Hasieran eta

62. *Cincuentenario del Banco de Tolosa* liburutik hartuta.

profesionaltasunaren eragina sumatzen hasi zen arte, Alaves, Real Union, Real Sociedad, Osasuna eta gaur egun historikotzat jotzen ditugun beste talde batzuekin neurtu zen. Garai hartan "Tolosa C.F." honako jokalaria hauek aritzen ziren: Langara, Julian Elozegi, Gurrutxarri, Esparza, Eugenio Hilario eta "Txolin", besteak beste. Jokalari horiek geroago beste talde batzuetan eta estatuko selekzioan ere nabarmendu ziren.

Estatu mailan Tolosa atletismoan nabarmendu zen. Behin kirol jarduera nagusia aipatuta, ezin dugu Jose Iguaran kirolari tolosarra aipatu gabe utzi, izan ere, kirol horren arima izan zen, eta hainbat kirolariren irakaslea. Aldianaldian Berazubiko pistan Estatuko eta atzerriko atletismo probak egiten ziren; 1924an, esate baterako, Espainiako lehenengo atletismo txapelketa ospatu zen, eta ondorengo urteetan beste txapelketa batzuk. Atleta tolosarrak ugariak izan baziren ere, horien artean badaude bi aipamen berezia merezi dutenak; batetik, Andres Iguaran (gormutua izan arren, Espainiako txapelduna eta recordmana izatea lortu zuen behin baino gehiagotan), eta bestetik Jesus Lakuntza (orain gutxi arte modu bikainean aritu izan den kirolaria).

Gipuzkoako hiriburu zaharraren eta naturaren arteko lotura estua izan da, Uzturreren magalean, harrizko Ernioaren ondoan eta Aralarreko mendilerrotik hurbil egoteak tolosarren artean mendirako zaletasuna eragin baitu. Tolosako mendi taldeei dagokienez, honakoak aipatuko ditugu: "Tolosa C.F."ko mendi saila, "Amigos de Aralar" elkarte (1927an sortua eta Aralarreko Igaratza aterpearen jabea), "San Esteban", "Club Alpino Uzturre" (gorago aritu izan gara honi buruz) eta OARGI taldeko mendi saila. Tolosako mendizale sutsuen artean Antxon Bandres Azkue gogoratu behar dugu, 1924an Federación Vasco-Navarra de Alpinismo izeneko sortu zuena; era berean, Seberiano Peña ibiltari ospetsua "Cuatro catedrales" ibilketa egin eta hamaika mendi igo zituena (Kilimanjaro...), Legiñena, José Alvaro, Elozegi, José María Peciña, Montblanc-en hildakoa, Urteaga anaiak, Etxedona, eskalatzen zendu zena, Ramon Ortiz eta Frantzisko Berrio⁶³, Naranjo de Bulnesen betiko agur esan zigutenak.

Tolosako "Etorri Alaiz" txirrindulari elkarteko kideak izan ziren, besteak beste, Lukas Jauregi eta Isaias Ruiz txirrindulariak. 1959an eta 1960an Berazubi eta inguruko Usabal eta San Blasen Espainiako eta Munduko ziklokros txapelketak ospatu ziren, hurrenez hurren.

Gure artean boxeorako zaletasuna ere izan da. 1934an, adibidez, Santiago Zurutuza eta bertako beste zenbait kirolariren ekimenez, "Club Ginnástico Tolosano" izeneko sortu zen; elkarte horretan boxeoaz gain beste kirol jarduera batzuk landu baziren ere, elkartearen helburu nagusietako bat kirol hori sustatzea izan zen. Bi urteko ibilbide laburrean zenbait saio antolatu

63. Berrio izatez ez zen tolosarra, baina kirola egiten bertara etortzen zen, Uzturre taldeko kidea baitzen.

zituzten eta beraietan boxeolari tolosarrek parte hartu zuten. 1939tik aurrera elkartek "Gimnástico Ataun" izena hartu zuen.

Arraunketari dagokionez, jarduna San Joan jaietan Oria ibaian ospatzen diren eta ikusmira handia sortarazten duten estropadetara mugatzen da.

Igeriketa orain dela urte batzuk sartu zen Tolosara. Lehenengo igerilekua, "Hermanos Iguaran" izenekoa, 1965ean egin zuten Berazubi estadioan. Handik urte batzuetara, 1968an, Zumardi Haundian, "apaizen ibiltokia" izenez ezagutzen zen alderdi horretan, hain zuzen ere, udalak bi igerileku osagarri eta igerileku olinpikoa egin zituen. Bai instalazio batean, bai bestean jende asko ibili ohi da eta bertan kirol txapelketa interesgarriak jokatzen dira.

Kirolari buruzko laburpentxo honekin amaitzeko aipatu behar dugu Berazubin tenisa praktikatu zela, eta gaur egun bertako frontoian saskibaloian eta pilota jokoan aritzen direla.

12. JAIK

12.1. Aste Santua eta Corpus Christi Eguna

Tolosako Aste Santuak ez du interes berezirik. Egun horietan Aste Santuko prozesioan hilobirako oinutsen pausua egiten da, 1777an deuseztatutako penitentziak gogora ekarri nahirik.

Gipuzkoan Corpus Christi Egunaren ospakizunari buruzko aipamenik zaharrena XVI. mendekoa da⁶⁴.

XVIII. mendean Tolosan egun horretako prozesioaren aurretik dantzarien konpartsak, erraldoiak, munstroa eta zezenetako panpina joaten ziren. Ohitura hori 1780an deuseztatu zuten lotsagabekeriatzat jotzen baitzen⁶⁵. Gaur egun, udal musika banda eta txistulariak bezperan kalejiran irteten dira; egunean bertan meza nagusia eta prozesioa egon ohi da. Prozesioaren ibilbidean hiru aldare jartzen dituzte; lehenengoa Idiakez jauregiaren ondoan, bigarrena "Arteagaetxea" aurrean, eta azkena Karlos VII.aren plazaren (Kristaletako plaza) aurrez aurre. Parrokiako abesbatzak eta orkestrak Kale Nagusiko eta Idiazkez kaleko aldareen aurrean E. Mokoroaren bi motete jo ohi dituzte.

12.2. San Joan

Tolosako herriko jaiak udako solstizioan ospatzen dira, San Joan Bataiatzailearen ohoretan. Aurreko egunetan herria txukundu egiten dute eta uda-

64. I. Zumalde, *Ensayos de historia local vasca*.

65. Gorosabel, *Bosquejo...*



San Estebango portada erromanikoa. XIII. mendekoa (Gaur egun Santa Maria parrokiako bataiategian dago)

leko langileak presaka ibiltzen dira xehetasunei azken ukituak ematen, urtearen beste sasoi batzuetan ahaztu edo aintzakotzat hartzen ez diren horiei, hain zuzen ere.

San Joan bezperan Tolosako kale jendetsu eta zaratatsuek alaitasuna islatzen dute. Eguerdialdera ezkila elektrikoen soinuak, kanpaien tonu baxu eta irmoekin nahastuta (kanpai-jolearen trebetasunaren eta iraupenaren erakusgarri⁶⁶) eta Udalaren suziri jaurtiketak herriko jaien hasiera lau haizetara zabaltzen dute. Arratsaldeko azken argiak itzaltzeaz batera, Julio Caro Barojaren arabera, inguruko mendietako suek urteko gaurik naturalistenera garamatzate.

Kaleetan barrena, Santa Maria plaza zahar eta estuaren erdian, su eder batek inguruko etxeetako hormetan itzal fantasmagorikoak proiektatzen ditu. Tolosak Bataiatzailearen begirada adeitsuaren pean sua gurtu egiten du, San Joan garaiko erritoetan nagusiena.

Jaiak programazio baten arabera ospatzen dira. Gaur eguneko jaiak buruz aritzeak ez du merezi, programak edozeinen eskura baitaude. Gorosabelek jaien inguruko xehetasun batzuk bildu zituen eta guk A. Barredak, Erregearen Kontseiluko kideak, 1763ko abenduaren 29an sinatu zuen txostena ekarri nahi izan dugu: “Bordon-dantzariak arratsaldeko ordu bietan lerrokatzen ziren; danbolina eta danborra hartuta alkatearen etxera joaten ziren, eta ondoren alkatea elizara eta San Joan Basilikara laguntzen zuten; berriro kalera irteten ziren eta bertan poz eta alaitasun zintzoa erakusten zuten; saioa amaitu ondoren alkate jaunak ohiko mokadua eskaintzen zuen eta jai-diputatuek Bordon dantzan aritutako mutilei ardo zahagiak”.

Gaur egungo irakurlearentzat interesgarria izango delakoan, XIX. mendeko egitarau baten zatirik bitxiena aipatu nahi dugu (1893 urtea, ur-ekarrera eta argindarraren instalazioa ofizialki inauguratu zen urtea): “Hilak 23. Arratsaldeko hiruretan Bezperak... Arratsaldeko zortzietan santuaren irudiaren aurrean sua biztuko da; bederatzietan Plaza Berrian su artifizialak ikusgai izango dira... Hilak 24. Goizaldeko bostetan diana, musika, dultzaina-joleak, erraldoi eta buruhandiekin. Goizeko zazpitan ... arratsaldean toreatu beharreko zezenen entzierroa. Hamarretan prozesio handia egingo da... Meza nagusiaren ostean zaleek zekorrak txuliatuko dituzte. Arratsaldeko hiruretan Bezperak. Ondoren Justizia plazan lehenengo zezenketa ospatuko da; bertan... Geroago... Zumardi Haundian aureskua dantzatzen duten bitartean bi iturrik ura isuriko dute. Gaueko bederatzietan argindar foku elektrikoek zelai txikia argizatuko dute... Gaueko hamarretan, dantzaldia Plaza Zaharreko udaletxeko aretoan”.

66. Azkenaldian bolondres bat aritzen da lan horretan.

12.3. Olentzaro

Eguberri jaiak neguko solstizioan ospatu ohi dira. Eguraldi txarra dela eta, gure artean familia giroan ospatzeko jaiak badira ere, Gabon Gauak badu berezko folklore kutsua, aberatsa eta pozgarria.

Tolosan “artzaiek” eta “artzaiandreek” txistua, akordeoia edo panderoa lagun dutela (xumeenak akonpainamendurik gabe), bihotz-bihotzetiko doinuz eta sasoiari buruzko hitzez osaturiko kantuak abesten dituzte; bitartean dirua biltzen dute eta kaleei ukitu atsegina eta hunkigarria ematen diete. Ilunabarrean aspaldikoa ez den ohitura bat zabaldu egin da: gizon bat ageri da kaleetan barrena asto goseti baten gainean eta jendez inguratuta; soinean arropa zaharrak daramatza, buruan txapel zikina eta ahoan pipa; esku batean argi goibeldun kandela du eta bestean bakailao buztana. Arlote hori Tolosan Olentzaro izenez ezagutzen dugu eta Beterriko, Goierriko zati bateko, Gipuzkoako itsasaldeko eta Nafarroako mendialdeko Eguberrietako jaietako loturik ageri da. Olentzaro mitikoak egun horretan ordu batzuek ikazkin lanak alde batera ditu eta gure kaleetan zehar ibiltzen da. Kondairazko pertsonaje horri buruz hauxe besterik ez dakigu: “begi gorri” dela, aurpegia belztua duela, tripontzia dela eta zurrutean ibiltzea gustatzen zaiola. Egun horretan zortziak inguruan, Urte Zahar egunean bezalaxe, udal musika banda kalejiran irteten da eta “Olentzaro” zortzikoa⁶⁷ jotzen du.

Errege Egunaren bezperan ere “artzaiak” eta “artzaiandreak” irteten dira, baina Gabon Gauean baino gutxiago. Egun horretan, arratsaldean OJE izeneko elkarteak Errege Eguneko kabalgata antolatzen du; Izaskun menditik abiatzen da eta ibilbidean zehar musika bandak Eduardo Mokoroaren obra bat interpretatzen du, egun horretarako konposaturikoa⁶⁸.

12.4. Inauteria

Zenbaitek inauteriaren jatorria antzinako orgia bakikoetan dagoela uste dute. Hitz horren etimologiaz idazle batzuek esan izan dute “carrus navalis” dela, Isis jaiak ospatzeko erromatarrek egin ohi zuten prozesioan oinarrituta.

Oro har, inauteri garaian satira, nahasmena, orgia eta muzkeria nagusitzen dira. Elizaren kritikak edo agintariek ezarritako debekuek ezin izan dute inauteria baztertu. Salbuespenak alde batera utzita, desagertu izan denetan gaur egungo arauekin bat ez etortzeagatik izan da.

Aipatu berri ditugun salbuespenen artean Gipuzkoako antzinako hiriburu “Inauterik” izenekoak aipa ditzakegu. Tolosako inauteria barregarria eta alaia da. Urtero-urtero berdina eta desberdina izaten da. Ostegun gizen egunean hasi eta Hausterre-egunean amaitu ohi dira. Jaiak hasi aurreko egune-

67. Eduardo Mokoroak konposatu zuen eta hitzak Valeriano Mokoroak jarri zizkion.

68. Hitzak Emeterio Arreserenak dira.

tan haurrak kalejira alaian ibiltzen dira herrian barrena inauteri egutegia modu zehatz eta argiro kantuka iragarritz: "Ostegun gizen...".

Tolosako inauteriak neurri handi batean jaien jatorrizko izaera gorde du; bilera gastronomikoez, zekor bolaztatuek, txarangen etengabeko jardunak, egun horietarako erreperitorio finko eta bereziarekin, mozerro bitxiak jantzita agertzen diren pertsonajeak, egun osoan ikusi eta entzun daitezkeen karrozek eta konpartsek ematen dioten izaera xarmangarria, jai paregabea izatera eraman duena.

Antzinako inauteria Plaza Zaharraren inguruan kokatu behar dugu. Bertan, 1764an ezereztatua izan zen arte, ohiko dantzaldia egiten zuten⁶⁹ eta alkateak, fidelak eta zinegotziek parte hartzen zuten. 1847tik XIX. mendearen hasiera arte Plaza Berria edo Foruen plaza izeneko herriko jai gunerik garrantzitsuena izan zen. Plaza horretan ikuskizun barregarriak, zezenketak eta dantzaldiak ospatu ohi ziren. Azken horiek Plaza horretako kontzeju etxean ere ospatzen ziren.

1903an zezen-plaza berria egiteaz batera jaiak norabide berria hartu zuten. Gure inauteriaren ohiko fisionomia zaharra aldatu egin zen, garai batean harresi-barrua izan zen alderdi meharretik atera eta Laskurain ibarrera eraman baitzuten. 1905ean saiakera gisa udalbatzak asteleheneko zezenketa zezen-plazara eramatea aztertu zuen, baina azkenean proposamenak ez zuen aurrera egin. 1908an eraman zituzten bolaztatuak zezen-plazara. Halere, Korreo kaleak eta Plaza Berriak jaiaren gunea izaten jarraitu zuten, izan ere, bata kalerik alaiena zen eta bestea dantzalekua.

Jai-ekitaldi ugarien artean Astearte Inauteko Alborada nabarmendu behar dugu, ukitu berezia gorde baitu urteen joan-etorrien gainetik. Tolosarentzat barru-barruko jai da. Parrokiako erloju zaharreko goizeko seietao kanpaiak entzuteaz batera, txistulariak musika jotzen hasten dira udaletxeko arkupeetan; une hori goiztiar zein gautxorientzat jaiaren gunea izaten da. Plaza Zaharretik Verdura eta Gorriti plazetara joaten dira; bertan alboradaren zati bat jotzen dute eta ondoren Korreo kaletik aurrera abiatzen dira eskola-pioen arkuraino. Pattar Zezenarenganako bidea hartuta txarangen dianak txistularien azken notak ito egiten ditu.

69. Gorosabel, *Bosquejo...*